

# B

BARREN

# Urte berri on!

TOKIKOM



*Karlos Argiñan*

12  
BALLON



Zure etxea,  
inoiz baino gertuago.



ETXEBIZITZA-GUNE BERRIA

## UZTARRI ETXEA

11 ETXEBIZITZA BERRI ELGOIBARREN

Bizi-kalitatea hobetzea eskaintzen dizugu BIKUN ERAIKUNTZAKen, etxebizitza eroso, erabilgarri eta ondo orientatutakoekin.

Elgoibarko gure hurrengo proiektua lekunik onenean eraikiko dugu, herrigunetik bost minutu baino gutxiagora (Santa Klara komentu ondoan). Zure beharretara antolatutako etxebizitzak dira, kalitate goreneko materialekin egindakoak.

**Ezaugarri bereziak:**

- 90 metro koadroako etxeak, 60 metro koadroako terrazarekin
- Aparkalekua (aukeran)
- Lehen mailako materialak
- Diseinu funtzionala
- Etxearen banaketa ergonomikoa



**Merkaturatzea:**

**943 741 528**

[www.bikun-eraikuntzak.com](http://www.bikun-eraikuntzak.com)



Maitane Mendikute

Zer moduz, Jani?  
Ondo al doa urte amaiera? Ni egia esan, lanpetu samar nabil. Gabonak direla eta ez direla, urte amaiera dela eta ez dela, zerrenda luze-luze bat dut egitekoekin, eta egunak behar baino planifikatuago daukat, ezertarako astirik gabe.

Eta presez ari garela, planifikazioez.... Konturatzen naiz, urteak aurrera doazen heinean, beharbada adinagatik, beharbada lanak eraginda... Gero eta planifikatzaileago bihurtzen ari naizela. Zu ez? Eta konturatzen naiz, gero eta urduriago jartzen naizela planak lotu gabe gertzen badira, eta oportetarako joateko azken hariak lotu gabe badaude, eta asteburuetan behar baino beranduago bazkaldu edo afaltzen badugu... Zer da hau? Zahartzen ari garena sindromea? Ala gero eta robot itxura handiagoa hartzen ari gara, gauza orok software programatu bat eduki behar duen garai honetan?


**“Konturatzen naiz urteak aurrera doazen heinean gero eta planifikatzaileago bihurtzen ari naizela”**

Egia esan, jaio orduko egina izaten dugu gure bizitzaren nolabaiteko *master Schedule* bat. Jaio, ikasi, lana egin, bikotekidea aurkitu, umeak izan, hil... Hori da gure bizitza “espontaneo”. Eta ez hori bakarrik. Zein maitatu behar dugun ere bideratuta izaten dugu nolabait, nola jokatu behar dugun ere bai, Etab. Etab.! Hortik ateratzen bagara, akabo!

Ederrak dira ba denoi hunkitzen gaituzten “ezinezko” maitasun amodioak; ederra dena utzi eta abentura berrien bila munduaren beste puntara alde egiten duen jendearen bizimodua; mundialak, ustekabeen azken orduan botatzen diren parrandaxoak....

Zuk zer diozu, Jani?

Pasatuko al dugu urte bukaera Tailandiako uharte galduren batean? Aix! Berandutxo!



Janire Elordi

Kaixo, Maitane!

Bai ba! Eder doa urte bukaera, urtea ere polita izan den legez, berezia. Eta pentsatzen jarrita, momentuz, egun bereziotarako dena prest izan ez izanak beste urte batzuetan baino gutxiago eragin dit gainera.

Hara bada... hau da hau nahastea... urte berrian sartu ez al ginen ba? Izan ere, aurtengo Elgoibarren Gabon Zaharreko feria ere urte berrikoa bihurtu digute! Badakizu, horrenbeste planifikatu, horrenbeste planifikatu, egun seinatatuak ere nahi baino arinago iristen zaizkigula, arinago biziartzten dizkigutela, bizitzari egunak lapurtuz.

**“Horrenbeste planifikatu, egun seinatatuak ere nahi baino arinago iristen zaizkigula”**

Baina pasatakoa alde batera utzita, urteko azken ale honetan, urteko azken asteazkenerako plan polit batekin natorkizu: epelean egoiteari muzin egin, mailak eta zapatilak jantzi, mototsa egin eta tipi-tapa tipi-tapa gure herri txikia korrika zeharkatzeko planarekin hain zuzen! Zure tentsio puntu hori sosegatzeko ezinhobea! Aurten estreina-koz, San Silbestreko karreratxoa Mendaron ere antolatu baitute eta badirudi sekulako arrakasta izan behar duela. Bejondeiela antolatzaileei! Eta aitzakia entrenamendu falta bada, badakizu, batu astearte-ostegun gauetan korrikalditxoa prestatzeko Mendaroko neska batzuen iniatibaz sortu den taldera.

Hala, gehiegizko planifikazioaren loturekin hasi eta urte bukaera Thaiandiako uharte galdu batean pasatzeko proposamena aieratu dizkidazun arren, aurtengoagatik uste dut San Silbestrearekin konformatu beharko dugula. Hurrengo batean nork daki? Agian amestu izan dugun Senegalerako bidaia planifikatuko dugu... Planak ilusioz egitea da kontua!

Ondo amaitu 2014a, Maita, eta hobeto hasi 2015a!!

**autocares Revert**

**Gabon zoriontsuak!** **Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura**  
 Avd. P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 741 853 - Faxi: 943 531 386  
 autocaresrevert@gmail.com  
 www.autocaresrevert.com

**ZURE ALDE ZA ABOKATUAK** **Gabon zoriontsuak!**

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.  
 Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

**Iñaki Gil Azpilicueta** **Ignacio Vazquez Gonzalez**  
 Jausoro Plaza, 3 behea e-mail: zurealde@telefonica.net  
 Tel.: 943 531 351 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBARR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpilaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi-biZiXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Erabakitze eskubidea

Gure Esku Dago hurrengo hilabeteetan egingo dituen ekintzen berri eman nahi dizuegu: oraingoan, ehuntze prozesu batean murgilduko gara. Ekimen honen helburua pertsona desberdinak elkartu eta aniztasuna lortzea da: aniztasuna adin, lan, ideia politiko, jatorri eta beste hainbat faktore kontuan hartuta; eta, herritarrok protagonista izanik, denon arteko ehuntze edo joste lana bultzatzea.

Herritar batzuek (tutore esango diegu) oihalak izango dituzte; oihal horiek 20 oihal zati txikitari banatuta egongo dira, eta, oihal zati txiki horietan, norbanakoaren atxikimenduak jasoko ditugu, herri baten erabakitzeko eskubidearen aldekoak. Zer behar dugu horretarako? Tutore bat, oihala betetzeaz arduratuko dena. Tutoreak bere inguruko beste 19 pertsonak Gure Esku Dago dinamizari atxikimendua ematea lortzea izango du helburu. Dinamizari atxikitzen den pertsona bakoitzak euro 1 ordaindu beharko du finantziarioan laguntzeko, baina ez dadila dirua izan atxikimendua lortzeko traba, ordaindu ezin duenak ez du ordainduko, baina bai parte hartu.

Herri bakoitzean pertsonalizatutako oihalak (20na atxikimenduz bateriko oihalak) apirilaren 25ean jositako ditugu bata bestearekin. Egun horretarako, Elgoibarren, jai polit eta jendetsua antolatu nahi dugu. Eta hurrengo ekintza garrantzitsua ekainaren 20an izango da, bost hiriburutan: Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Baionan. Herri bakoitzean bildutako oihalen bidez, hauteskontzi erraldoiak eraikiko dira eta lortutako atxikimendu guztiak zenbatu.

<https://gureeskudago.net/ehuntzen/>

Laster jasoko ditugu oihalak eta tutore izatera gonbidatu nahi zaitugu. Bestalde, ideia interesgarriren bat baduzu, apirilaren 25eko jai antolatze-ko, ongi etorri! Ea guztion artean atxikimenduz bateriko jai erraldoi bat egiten dugun! Ziur baietz!

**Elgoibarko Gure Esku Dago**

### Jaiotza lehiaketa

Aurtengo jaiotza lehiaketa betikoek irabazi dute berriro. Arazoa ez da hori zehazki, baizik eta lehenengo postuetan gelditu diren hainbat jaiotza ez dituztela umeez montatu, lan konplexu handia ikusten zelako. Egiten duten balorazioa oso txarra da, ez dituztelako hartu kontuan umeez eginda-

koak. Ingenieritza-lanak eta gurasoek egindakoak saritu dituzte. Umeen ilusioarekin ari zarete jolastan. Eta beti berdinek irabazten dute gurasoek egindako lanekin. Lotsagarria benetan.

**P. V. B.**

### Euskal Eskola Publikoaren jai

Abenduaren 11n udaletxean elkartu ginen Euskal Eskola Publikoaren Jai aurkezteko. Gurekin zeuden Haurreskolako, Institutuko, Mekako eta, noski, gure eskolako haur, irakasle, langile eta gurasoak. Eta guzti horiez gain, asko izan zineten pleno aretora gerturatu zinetenak gurekin egotera. Bihotz-bihotzez, mila esker guztioi.

Zuek guztion babesa sentitu genuen, urduritasun guztien gainetik, zuek gurekin egoteak pozten gintuen eta gure eskerrik beroenak banan-banan ematen saiatu ginen arren, badazpada, hemen doa gure esker ona, gurekin, goxo-goxo aurkezpen ekitaldian egon zineten

**Kalamua Guraso Elkarte eta Herri Eskola**

### NOW

Hilaren 9an Sareren aurkezpena izan genuen Elgoibarren. Joseba Azkarragak eta Teresa Todak ederki azaldu zizkiguten Sareren filosofia eta ideiak: herritarren sarea izan nahi du, pertsona desberdinez osatua, preso politikoen sakabana-keta amaitzea helburu duena. Preso eta iheslarien giza eskubideen urraketak bukatu nahi ditu, giza eskubideak defendituko dituena. Eskerrik asko, Joseba eta Teresa emandako hitzaldiagatik! Eta eskerrik asko bertaratu zineten guztioi!

Baina baditugu aurrean erronka handiak. Eta lehena urtarrilaren 10an Bilbon egingo den mobilizazioa da. Gorrotoa eta mendekua besterik ez ditu bilatzen Espainiako Gobernuak. Egun hauetan probatzen ari gara rezeta hori. Baina euskal jendarteak ez du halako jarrerarik ulertzen eta Bilbon aukera izango da hori adierazteko. Bilbotik mundura hedatuko den mezuak denon ahotsa behar du, eta parte hartzea gonbidatu nahi zaituztegu, dispertsioa bukatzea nahi dugulako, presoen eskubideak errespetatuak izan behar direlako. Elgoibarren autobusak jarriko dira Bilbora joan ahal izateko eta dei berezi bat egin nahi dugu lehenbailehen izenak emateko.

**Elgoibarko Sare**



**Pedro Miguel Urruzuno kalean zebrabideak falta dira:** "Pedro Miguel

Urruzuno kalea oinezkoentzako moduan jarri zuten, baina oraindik ere autoak ibiltzen dira kale horretan. Poliki ibili behar dute berrez, baina badira azkar ibiltzen direnak ere, eta baita oinezkoei lehentasuna ematen ez dietenak ere. Eskertuko genuke zebrabideak jarzea. Mila esker".



**Merkatu Plazako sarrera oso ondo geratu da:**

"Berandu bada ere, azkenean egin dute Merkatu Plazara sartzeko arrapala, eta oso ondo geratu da. Txukuna egin dute. Irisgarritasun arazoak gainditzen ari gara poliki-poliki".

**Partaide guztiek jaso zuten domina jaiotza lehiaketan:** "Txalo bat eman nahi diegu jaiotza lehiaketa antolatzaileen dutenei, aurten parte-hartzaile guztiei eman dietelako domina. Lehen, irabazleek jasotzen zuten garaikurra, eta gainerakoek gozokiak bakarrik, eta aurten aha-lerin berezia egin dute denak saritzeko".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
barren@elgoibar.koizarra.com 943 744 112



# DARIC bus

**ESSER N-N1 Industrialdea**  
**20850 MENDARO (Gipuzkoa)**  
**Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.**  
**20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)**  
**Tel.: 943 741 677**  
**943 203 442**  
**607 410 410**  
**www.dariobus.com**  
**clientes@dariobus.com**





## ZORIONAK ETA URTE BERRI ON






Talleres MYL, s.a.u. Eramane Poligonoa, 1-3-5 E-20850 Mendara (Gipuzkoa) Tel: 943 575 003 | myl.es

PRECISION SPINDLES

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

**Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!**



Kalebarren plaza, 2 – 943 742 731  
20870 ELGOIBAR • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

## GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
[goki@gokierreformak.com](mailto:goki@gokierreformak.com)



Irizar Ibilbidea, 1 behe 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216  
[bergara@gokierreformak.es](mailto:bergara@gokierreformak.es)



I.T.E.  
Eraikinen ikuskaritza teknikoak



Energia-eraginkortasunaren  
ziurtagiria

Fatxadak - Teiltatuak - Bainugelak - Sukaldeak  
Igogailuak - Gremioen koordinakuntza  
[www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)

**Gabon  
zoriontsuak!**

## Ainara Ladron libre gelditu da, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak bere kontrako karguak erretiratu ondoren

Segiko kide izatea egotzita epaitu dute Madrilen, beste 27 lagunekin batera

**A**inara Ladron libre gelditu da. Segiko kide izatea leporatuta epaitu dute Espainiako Auzitegi Nazionalean, beste 27 gazterekin batera, baina martitzenean, Juan Antonio Garcia Jabaloy fiskalak erretiratu egin zituen horietako hamabiren kontrako karguak –tartean Ladronen kontrakoak–, eta ondorioz, horiek libre daude, fiskaltza izan baita akusazio bakarra 28 gazteen kasuan. Beste hamasei gazteen kontrako seina urteko kartzela zi-

gor eskaera berretsi egin zuen fiskalak, eta epailearen erabakiaren zain daude orain horiek, eguaztenean bukatu baitzen epaiketa, parteen ondorioak irakurri eta epaileak auzipetuei azken hitza hartu ostean. Fiskalak ez zuen arrazoi zehatzik eman azaltzeko zergatik utzi dituen libre Ladron eta beste hamaika gazteak, eta besteak ez.

Segiko kide izatea leporatuta pasatu dira epaileen aurretik guztiak, eta inkomunika-



zio aldian egindako deklarazioak erabili ditu fiskalak haien kontra egiteko. Gazteetako askok inkomunikazio aldian torturak salatu zituztela salatu zuten.

## Urteko gaztarik onena aukeratuko dute Gabon Zahar eguneko ferian



Gazta txapeldunetan onena aukeratuko dute abenduaren 27an, Gabon Zahar ferian. Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailerak araututa, aurten Euskal Herrian egin dituzten 18 ar-

di-gazta lehiaketetako gutxienez bat irabazi duten gaztagileak batuko dira Elgoibarren. Hamar gaztagile guztira; tartean, Mautsitxa gazta.

Elgoibarko Udalak eta Kalamuak antolatu dute lehiaketa, eta zazpigarrena da aurtengoa. Udaletxeko pleno aretoan egingo dute lehiaketa eta 13:30ak aldera emango dute jakitera aurtengo irabazlea. 1.500 euroko sari bakarria egongo da.

Gazta txapelketari lotuta, maridaje-afaria antolatu dute abenduaren 20rako Belaustegi jatetxean, Idiazabal gazta eta goi mailako ardoak uztartzeko. Guztira, bost plater dastatzeko aukera egongo da. Afaritara joan nahi duenak Belaustegi jatetxean bertan eman dezake izena ( 943 743 102). Afariak 55 euro balio ditu, BEZ eta autobusa barne. Autobusa 21:15ean irtingo da Eibartik, eta 21:30ean, Txankakoa zubi paretik.

## Euskal dantza tradizionalen ikastaroa, Elgoibarko Gaztetxean

Abenduaren 20tik 23ra euskal dantza tradizionalen ikastaroa eskainiko dute Gaztetxean. Erromeriako oinarriko dantzak erakutsiko dituzte: fandangoa, arin-arina, balsa, jauziak... Hasiberrientzako ikastaroa izango da. Bihar izango da lehenengo saioa 10:30ean, eta agertzen den jendearen arabera erabakiko dituzte hurrengo saioen ordutegiak. Horrez gain, Truke Azoka egingo dute bihar Gaztetxean bertan, 12:00etatik aurrera. Liburuak, jantziak, eskulanak, musika CDak... trukatzeko azoka izango da. Ez dute dirurik erabiliiko produktuak erosteko eta elkarren arteko akordioak lortuz egingo dituzte tratuak. Gazte asanbladak Eguberrietarako antolatu dituen ekintza guztiak agendan dituzue.

## Gaur piztuko dute jaiotza mekanikoa

Elgojaitza taldeak gaur jarriko du martxan jaiotza mekanikoa. 20:00etan zabalduko dute, eta urtarrilaren 17ra arte egongo da ikusgai. Berezia da Elgoibarko jaiotza mekanikoa, eta urtero bezala, mugimenduan ikusi ahal izango dira hainbat figura.

## Izena **Jaiotza lehiaketa**



Era guztietako materialekin egindako jaiotzak ikusi ahal izan ziren domekan Parrokiako katekesikoek urtero antolatzen duten jaiotza lehiaketan. Guztira, 26 jaiotza aurkeztu dituzte aurten, eta Ainitze Plaza, Eider Plaza, Maddi Plaza eta Olatz Makazagak aurkeztutako jaiotzak irabazi zuen lehen saria. Bigarren saria, berriz, Goizeder Arnedo eta Nagore Casaresentzat izan zen, eta hirugarrena, Elena eta Maria Amaro ahizpentzat. Lan guztiak Zubiaurre-Murua familiak lagatako lokalean jarriko dituzte ikusgai urtarilaren 7ra arte (Errosario kalea, 7a). [www.barren.eus](http://www.barren.eus) helbidean dituzue argazki gehiago ikusgai.

## **Hilaren 26 eta 27an irekiko dute Elgoibarren bidezko merkataritzaren denda**

Eguberrietan ere zabalduko dute Elgoibarren bidezko merkataritzari laguntzeko denda. Merkatu Plazan dute denda, eta 10:00etatik 13:00ak aldera arte izango dute zabalik, hilaren 26an eta 27an.

## **Antonio Erkiaga 'Soarte' omenduko dute hilaren 27an Elgoibarren**

Antonio Erkiaga *Soarte* omenduko dute Elgoibarren Gabon Zahar feria egunean egingo dute idi-proben aurretik. Idi-pare gazteen txapelketako saioa izango da. Aurrez, abenduaren 23an eta 26an ere jokatu dira saioak, denak ere ordu berean: 22:00etan. Sigmako Probaleku Elkarteak antolatu du txapelketa, eta Sigmako probalekuan bertan jokatu dira saioak. Sarrerak 15 euroan jarriko dituzte salgai.



## **Ateak irekitzeko eguna izan zuten Danobaten igandean**



1954an sortu zuten Danobat enpresa Ermuaranbide kaleko tailer txiki batean. Hirurogei urte pasa dira ordutik, eta gaur egun munduko enpresa garrantzitsuenetakoa da erreminta-makinaren

sektorean. Joan den domekan, abenduaren 14an, 500 lagunetik gora batu ziren Elgoibarko Arriaga auzoan kokatua dagoen lantegira, 60. urteurrena ospatzera.

Ekitaldia goizeko 10:30ak aldera hasi zen, eta hitzaldi motz baten ostean, tailerra ezagutzeko aukera izan zuten beharginen senideek: lan-gune desberdinak, makinak, jantokia... Lantegia hainbat guntan banatu zuten ospakizun ekitaldirako, eta gune bakoitzean makina-erremintaren nondik norakoak azaldu zituen kooperatibako kide batek. Eguerdi aldera, mokadutxo ere egin zuten, eta txikienek apropos eurentzako jarrirako puzgarri, txirrista, zezen-mekaniko eta gainerakoetan ibiltzeko aukera izan zuten.

Ospakizunak ez zituzten hor amaitu, hala ere. Danobateko kide izan diren eta jubilatutik dauden lagunek ere lantegia barrutik ikusteko aukera izango dute eta abenduaren 20ra bitartean. Orain arte 200dik gora lagun pasatu dira Danobatek bisitan.



# Elgoibarko 140 ume inguruk jasoko dituzte Gurutze Gorriak Eguberrietako kanpainan batutako jostailuak

Gabon egun bezperan banatuko dituzte opariak zailtasun ekonomikoak dituztenen artean

**J**ostailuak eta opariak jasotzeko kanpainan jardun du Elgoibarko Gurutze Gorriak, eta jasotako jostailu guztiak Gabon egun bezperan, abenduaren 23an, banatuko dizkiete zailtasun ekonomikoak dituzten familiei. Aurten 140 ume inguruk jasoko dituzte jostailuak, aurreko urteetan baino gehiagok. Kanpainaren sustatzaileek gogorazi dute haur guztiak dutela jolasteko eskubidea, jostailuak erosteko nahikoa baliabide izan edo ez: "Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aitortzen duenez (1959ko azaroaren 20a), jolasa oinarriko eskubidea da, jolasteak aukera paregabeak eskaintzen dituelako haurtzaroran osasuntsu hazteko eta garatzeko. Jolasa ikasteko modu bat da ume-umetatik, mundua deskribatu, manipulatu, behatu eta interpretatzeko, eta inguruan dugun guztiarekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu".

## Jostailuak erosteko aholkuak

Kanpaina honen barruan, webgune bat ere sortu dute adin bakoitzerako jostailurik egoki eta segurueni buruzko informazioa eta aholkuak zabaltzeko: [www.eljugueteeducativo.com](http://www.eljugueteeducativo.com). Era berean, sare so-



zioletan ere badihardute heziketa lan horretan, Facebook eta Twitter sare sozialean bitartez, honako traola erabiliz: #CampañadeJuguetes.

**USUA** kafetegia  
943 256 028



**Lanbroa**  
Pedro Muguruza, 5  
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806



**ibai-ondo erretegia**  
943 256 028



*Gabon  
zoriontsuak  
herritar  
guztioi!*

- EGUNEKO MENUAK
- MENU BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK ERAMATEKO
- PINTXOAK

# LUIS ULAZIA

ARKITEKTOA

**Elgoibarko Hiri bilakaera** izenburuko liburua aurkeztu zuen atzo Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak. 1981etik 1999. urtera udaletxeko arkitektoa izan zen, eta erretiroa hartu arte Arkitektura Fakultatean jardun du irakasle. Elgoibarren egin diren hainbat obren erreposoa jaso du liburuan, irudiz eta planoz lagunduta.

**“Elgoibarrek daukan lekurik ederrena Kalegoen plaza da”**

**Nolatan sortu zitaizun Elgoibarren bilakaera arkitektonikoa jasoko zuen liburua idazteko gogoa?**

20 urtez jardun nuen udaletxean arkitekto lanetan. Hasierako urteetan lantaldea ilusio handiz zegoen, eta amaieran apur bat nekatuago, baina gauza asko egin genituen. 1992an Arau Subsidiarioak onartu ziren, eta ondoren lan asko egin ziren. Lan horiek liburu batean jasotzea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaidan, eta halaxe hasi nintzen. Orain dela 15 bat urte hasi nintzen, eta orain gauzatu dut.

**Nola egituratu duzu liburu?**

Lehenengo zatian Elgoibarri buruzko historia laburra egin dut. Plazak eta oinezkoentzako toki egokienak nola sortu ziren, suteek, gerrek edo uholdeek zelako eragina izan zuten eta beste hainbat bitxikeria azaldu ditut, irakurleak Elgoibarri buruzko eskema orokor bat izan dezan. Industriaren eboluzioa ere jaso dut: 1914an sortu zen Estarta y Ecnarro Santa Ana kalean, eta poliki-poliki joan ziren beste hainbat enpresa sortzen. Hasieran, herrigunean, eta gerora, industriguneetan. Jende asko etorri zen lanera, eta horrek etxebizitza beharra ekarri zuen. 60. urte inguruan etxe pila bat egin ziren, Santa Ana kalean, Pedro Muguruzan... Autorik ez zegoen eta aparkalekurik ez zen behar, baina oinezkoentzako guneak ere ez ziren egin. Ikerketa sozioekonomiko bat egin zuten, eta 1985erako Elgoibarrek 25.000 biztanle izango zituela aurreikusituen. Hori kontuan hartuta etxebizitza berriak egin ziren, baina planifikazioa ez zen egokia izan.

**Bigarren atalean hainbat lan konkritu jaso dituzu, tartean Urazandi auzoan eginitakoak. Kontaiguzuzer egin zen Urazandin.**

1982an, Arrieta alkate zela, Urazandi auzoa egiteko proiektua hasi zuten. Plano gainean beste bi etxebizitza bloke egitea aurreikusi zuten, gaur egun haur eskola dagoen parkean. Nik proposatu nuen 66 etxebizitzako bi bloke haiek ez egitea, eta haren ordean parkea eta azpian aparkalekuak egitea. Batek baino gehiagok pentsatu zuten zoratuta nengoela. Babes ofizialeko etxeak ziren, eta haren ordean, aparkalekuak egiteko proposamena astakeria iruditu zitzaion, baina Urazandin ez zegoen pasiatzeko lekurik eta arnaguneak behar ziren.

**Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxeek zeresan handia eman dute, eta batek baino gehiagok esan du ospitale itxura duela eraikin horrek. Zure ustez zer moduz geratu da ingurune hori?**

Ingurune horretarako beste plan bat zegoen diseinatuta. Etxebizitza plan partziala onartuta zeukan Eusko Jaurlaritzak. Aparkalekuak egiteko proposamena ere bazegoen, kultur eraikin bat eta plaza eder bat aurreikusi ziren. Hor beste txoke bat sortu nuen, plan partziala hankaz gora jartzen zuelako nire proposamenak. Bilerak egin ziren, eta onartu zuten nire proposamena. Udalak Gabilondo enpresaren lursailak erosi zituen, eta promotoreekin ere hasi zituzten harremanak, baina gerora beste proposamen batzuk jarri ziren mahai gainean. 98. urte inguruan erabaki zen babes ofizialeko etxebizitzak egitea, eta proposamen horrek egin zuen aurrera. 100 etxebizitza egin ziren, baina horrek ez zeukan nik egin nuen proposamenarekin zerikusirik. Nire proiektuan Elgoibarko plazaren bikoitza zen beste plaza bat zegoen erdigunean, eta hogeitatu etxebizitza egitea proposatu nuen, plaza hori Aiestia aldetik etortzen den haizetik babesteko. Hegoaldera begira geratzen zen gainera plaza hori, behar den bezala. Elgoibarren Jausoro plaza bakarrik dago hegoaldera begira.

**Hirugarren atalean plangintza orokorrari buruz diharduzu.**

Lehenengo plan orokorra 73an egin zen, 92an arau subsidiarioak onartu zituzten eta 2012an berriro egin dute plan orokorra. Hogeitatu urtean behin egin dituzte gutxi gorabehera, eta plan berri bat egiten den bakoitzean aurrekoa aldatu egiten da. Hirugarren atal honetan plan horien arteko konparaketa egin dut, unibertsitatean erabiltzen nuen metodo batekin, erabilgarritasuna, ingurumena eta kostua kontuan izanik.

**Irugarritasun arazoei aurre egiteko hainbat igogailu eta eskailera mekaniko egin dituzte herrian. Irugarritasunari dagokionean, nolako herria da Elgoibar?**

Eskasa. Trenbidea dago herri erdian eta hori oztopo handia da herriarentzat. Igogailu bat egin dute, orain beste bat egiten ari dira, eta nire ustez, hori ez da irtenbidea. Beste aukera batzuk baloratu behar ziren, Eibarren adibidez, estali egin dute. Igogailuak ez dira egokiak. Jendea ibili egin behar da, eta oinez ibiltzeko egokitu behar da herria. San Rokerako bidean aldapa laututa oinez ibiltzeko egokitu zitekeen, hainbeste igogailu eta eskailera mekaniko egin gabe. Eskailera mekaniko gehiegi egin dira Elgoibarren, eta Marañon inguruko eskailera hori sekulako astakeria da. Oso bertikala da, eta hor bai etorriko litzatekeela hobeto igogailua.

**Zein da zure ustez Elgoibarrek daukan gunerik onena?**

Kalegoen plaza, dudarik gabe. Frontoiak haizearengandik babesten du plaza, eta toki egokia da gazte nahiz helduentzat. Kalea eta plaza da aldi berean, eta munduan ez da egongo horrenbeste sarrera dituen beste plazarik. Sei sarrera baditu gutxienez, eta gainera herri erdi-erdian dago. Eraikin monumental dotoreak ditu, oinezkoentzako espazio zabala... Dudarik gabe Elgoibarko lekurik egokiena da. Kontuan izan, gainera, herritarrei esker dagoela plaza hori hor. 1630. urtean Olasoko dorrea zegoen hor, eta herriak erosi egin zuen. Garai hartan San Bartolome kaletik botika dagoen guneraino etxeak zeuden, eta botika atzean zegoen dorrea. Herriak dorrea erostearekin bat, etxeak bota egin zituzten, eliza egiteko. 80 bat urte pasatu zituzten herritarrek gaizki inbertsio hori egiteagatik, baina sekulako espazioa irabazi zuten.

**Eta, aldiz, zein gune iruditzen zaizu aldatu behar dela?**

Gauzak berritu edo aldatzea ez da erraza, baina ingurune batzuk asko hobetu daitezke. Azkoitiko bide zaharren eskubitara dauden industri enpresak kendu eta etxe zaharrak behera botata, espazio oso interesgarri bat lortuko genuke. Bi etxe bloke handi egingo nituzke, hegoaldera begira, eta hotel bat eta plaza bat, kiroldegiko kalearekin bat eginez.

**Maalako parkea estaltzea erabaki du Udalak. Zer iruditu zaizu?**

Lehen esandako hiru aldagaiak (erabilgarritasuna, ingurumena eta kostua) kontuan izanda aztertu beharko litzateke. Batetik, Aiestiatik sartzen den haizeaz babesten duen ikusi behar da, eta bestetik, jendeak erabiltzen duen neurtu. Eta jakina, kostua. Hori jakin arte ezin dut iritzia eman. Ikusi egin beharko da jendeak erabiltzen duen edo ez.

**Nola uste duzu hartuko dutela zure liburua?**

Batzuek ondo, eta beste batzuek, gaizki,

baina ez nau kezkatzen. Nik ez diot inori dirurik eskatu liburua ateratzeko; nik egin dut dena. Hausnarketarako liburua idatzi dut, egin diren lanek eragin dituzten ondorioen gainean erreflexionatzea nahi dut. Esaterako, babes ofizialeko etxebizitza asko egin dira eta hori ondo dago, baina horren ondorioz oinezkoentzako espazio asko galdu dira, berdegunerik ez dago, aparkalekurik ere ez... Kontuan izan behar dugu gaur egiten diren lanen ondorioak sufritu edo gozatuko dituztela ondorengo belaunaldiek. Oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta oinezkoentzako guneak sortzea da garrantzitsua bizi kalitaterako. Nire proposamenen askoz plaza eta gune ireki gehiago zeuden, baina plan orokor berrian gauza pila bat aldatu dituzte. 300 orrialdeko liburuan saiatu naiz orain arteko lanak baloratu edo hobekuntzarako proposamenak egiten. Badakit proposamen asko utopikoak direla, baina baloratu egin behar dira, eta aztertu.

**Aurrera begira zein dira zure asmoak?**

73 urte ditut, orain dela hiru jubilatuta nintzen unibertsitatean, baina inoiz baino aktiboago nago. Beste pare bat liburu ere baditut eskuartean, eta posible da besteren bat argitaratzea.

“Oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta oinezkoentzako guneak sortzea da garrantzitsua”

Azaroan...

## JAIOTAKOAK

Goizalde Luluaga  
Legarda Azaroak 16  
Iker eta Ainara

Daniela Andrea Dumitru  
Azaroak 15  
Viorel eta Luminita

Danel Uria Gurrutxaga  
Azaroak 16  
Josu eta Sare

## EZKONDUTAKOAK

• Marbxelo Mendizabal eta Amaia Alonso Azaroak 8

## HILDAKOAK

Manuel Mejuto Gomez • 89 urte • Azaroak 2  
Maria Eloisa Lopez de Abetxuko Madarieta • 84 urte • Azaroak 9  
Angela Torinos Garcia • 89 urte • Azaroak 23

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira  
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.  
Elgoibarko Izarrako bazkideek 3,50€ eta gainerakoek 4,50€.

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK

NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak

Erietxe zentruetan  
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

II. URTEURRENA

## KERMAN MORENO IRIONDO



*Mendietarantz pauso luzea  
bizitzak krudel haizea  
nola gainditu, nola arindu  
zu hemen ez izatea.  
Zure goxoa, zure barrea  
gertu beti umorea  
ez hiltzen zenbat saiatzen garen  
bizitzen gutxi, ordea,  
gugan landatu dituzunekin  
segiko dugu bidea.*

Etxekoak



2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. II.urteurreneko meza zapatuan, abenduaren 20an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

## Erretratu zaharra



**1954**

Aste honetako erretratu zaharra Lupe Castrillejok ekarri du BARRENERA. 1954ko sanbartolomeetan ateratako argazkia da, garai hartako Correos-eko eraikinaren aurrean, gaur egun Kultur Etxea den eraikinaren aurrean, hain zuzen ere. Alkandora txuria jantzita, umore onez ageri dira gizonezko horiek argazkian. Atzean, zapi gorria soinean dutela ageri dira herritarrak, eta erretratuak ateratzeko dekorazioak ere ikusi daitezke. Garai hartan oso ohikoak ziren erretratuak ateratzeko dekorazio horiek eta argazkilari asko etortzen ziren jaietan.

**Ezkerretik eskumara:** Hector Alberdi 'Patxillo'(†), Juanito Irureta, Jacinto Sota, Fernando Azpiazu (†).

II. URTEURRENA

## KERMAN MORENO IRIONDO



2012ko abenduaren 20an hil zen,  
43 urte zituela.

*Heriotzaren ondoren  
gure laguna ez ikusteak  
edo berarekin komunikatu ezin izanak  
ez du esan nahi betiko galdu dugunik.*

Zure lagunak





# Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L  
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net



## Gabon zoriontsuak!

**atzak**  
Kafetegia

San Roke 28, behea - 943 531 301 / 627 941 261

FONTANERÍA  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B  
Floren Cid: 647 463 436  
E-posta: ibamar@euskalnet.net

- BEROGAILUA ● GASA ● GASOILA
- AIRE EGOKITUA ● ALTZARIAK
- MANPARAK ● OSAGIAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA ● ERREFORMAK



Azken etxebizitza Geminis etxe-gunean,  
2 logela, 2 komun, trasteleku eta garajearekin.

**132.800 €**

**GABILONDO**  
317  
api  
INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua

API { Eburne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

**HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA**

**Gabon zoriontsuak!**

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 74 44 67

## Txiki geratu zen Kalegoen plaza, urte zaharrari agur esateko ekitaldiaren grabazioan

Udalak 20.000 euro ordaindu ditu urte zaharreko kanpaikadak Elgoibartik emateagatik

**G**abon Zaharreko kanpaikadak Elgoibako Kalegoen plazatik eskainiko ditu ETBk abenduaren 31n, baina ez da zuzeneko saioa izango. Joan den barixakuan grabatu zuten saioa. Euskal telebistakoek argiz eta apaingarriz jantzi zituzten Elgoibarko udaletxea eta San Bartolome parrokia, eta plazan bertan eraiki zuten platoa, lurretik hamar bat metrora, andamio baten gorenean. Han goitik eman zuten kanpaikaden berri ETBko aurpegi ezagunek, parrokiako ordularia atzean zutela: Ramon Roteta eta Ander Gonzalez sukaldari eta *No Es País Para Sosos* saioko aurkezleak, Karlos Argiñano (Anjel Alkain) eta Martin Berasategi (Iker Galartza), eta Sara Gandara ETBko kiroletako aurkezleak. Euskal Telebistako iturriek jakinarazi dutenez, jai eta umore giroko emanaldiak eskainiko dituzte bi kateetan, euskaraz. *15 baietz!* saioa eskainiko dute ETB1ean, eta *No es nochevieja para sosos* ETB2an. Saio horren barruan konexioak egingo dituzte Elgoibarko Kalegoen plazarekin, eta 23:45etik kanpaikadak jo arteko hamabost minutuak Elgoibartik eskainiko dituzte, zuzeneko emisioa izango balitz bezala.

Elgoibarko Udalak 20.000 euro eman ditu ETBk Gabon Zaharreko kanpaiak Elgoibartik eman ditzan. Izango duen oihartzuna kontuan hartuta, 20.000 euro "prezio egokia" dela uste du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, eta nabarmendu du ez dela "garestiegia", kontuan izanda 45 segundoko iragarki batek ETB2n 24.000 mila euro balio dituela. Euskal Telebistak kanpaikadak Kalegoen plazatik ematea Elgoibarrentzat "propaganda handia" dela adierazi du, Elgoibarko herria EITBko hainbat mediotan aipatuko delako eta Elgoibarko irudiak ETBn agertuko direlako. Kanpaikaden grabazioaz gainera, ETBren sinatutako hitzarmenean jaso dute, ETBk "tratamendu berezia" eskainiko diela Elgoibarren egingo diren beste hainbat ekintzei; Kataiak ikuskizuna, Gabon Zahar Feria eta Muger-tza krosari, hain zuzen ere.

### Barkamena herritarrei

Alkateak jakinarazi duenez, barixakuko grabazioaren emaitzarekin oso pozik geratu dira Euskal Telebistako arduradunak, besteak beste, irudi oso politak hartu zituztelako plazan. Herritar asko, baina, ez zeuden pozik, grabazioa esandakoa baino gehiago luzatu zelako. Alkateak azaldu duenez ETBkoek hasierako plangintza aldatu behar izan zuten. Haiseran aurkezleak herritarren bistara jartzea zen Euskal Telebistakoen asmoa, baina kanpandorra eta ordularia nahi zuten bezain ondo ikusten ez zirela-eta, estudioa aldamiio baten gainean jartzea erabaki zuten. Musikak ere uste baino arazo gehiago eragin zituen, eta une askotan musika sakrifikatu behar izan zuten, grabazioaren mesedetan. ETBkoek onartu dute euren plangintza aldaketak eragozpenak sortu zituela, eta barkamena eskatu nahi diete herritarrei. Etxeberriak, bestalde, herritarrek beste behin ere primeran erantzun zutela nabarmendu du, eta eskerrak eman dizkie Kalegoen plazan izan ziren guztiei.



# Jaso ditugu Elgoibarko Izarrak antolatuko duen tonbola osatzeko opariak! Eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik!

Iban Urizar / Sinuose / Uxue Alberdi / Jasone Osoro / Maite Rementeria / Iñigo Lariz / Jesus Mari Makazaga / Unai Villena / Eburne Askasibar (Bitxi Bitxi) / Txomin Mujika / Napoka Iria / Emilia Nogales / Andres Alberdi / Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" / Zaloa Arnaiz / Danele Sarruigarte / Izaro Etxegibel / Irati Agirreazaldeggi / Zuhaitz Gurrutxaga / Felix Etxeberria / Amaia Erkizia (Magi Bitxiak) / Jon Gerrikabeitia / Jon Gurrutxaga / Jairo Berbel / Maite Maiora / Lurdes ileapaindegia / Soraya estetika / Garbiñe estetika / Oin Berri podologia zentroa / Beitia Arriola hortz klinika / Aldaz hortz klinika / Softlan informatika / Mapfre aseguroak / Uzuri optika / Egur / Haritz euskal dantza taldea / Ikasi mobilteknika / Zezenbide autoeskola / Azkue argazki denda / Soarte argazki denda / Leigar etxetresna eta elektrodomestikoak / Bire etxetresna eta elektrodomestikoak / Garate jantzi denda / Ostruka jantzi eta oinetako denda / Moma jantzi denda / Iriondo kirolak / Skandalo mertzeria / Maidagan jantzi denda / G&M jantzi denda / Agirre sastreteria / Lagunak koltxoi denda / Sara jantzi denda / Kontxi haurren jantzi denda / Astigarra kirolak / Luvik oinetakoak / Pitxintxu / Gorostiza liburu denda / Eroski / Ziarda harategia / Arantza eta Marian fruta denda / Txilarre Barazkiak / Amaia fruta denda / M<sup>a</sup> Angeles fruta denda / Zabala fruta denda / Caramel goxo denda / Amagoia goxo denda / Armueta harategia / Arkupe okindegia / Doña Mercedes / Eizagirre okindegia / Fotero okindegia / Ibarrenea okindegia / Mari harategia / Patxi harategia / Lerun jatetxea / Iturri taberna / Orbea Taberna / Iriondo taberna / Lanbroa taberna / Tantaka taberna / Mahats ardandegia / Usua kafetegia / Belaustegi jatetxea / Ibai-

Ondo erretegia / Gautxo jatetxea / Gabi jatetxea / Ilunpe taberna / Jose Mari Ondarza / Altzola Berazeta baserria / Muruamendiaraz gozotegia / Txarriduna jatetxea / Urratsak oinetako eta jantzi denda /

MGS mutua / Giauto karrozeria / Euskoauto karrozeria (Toyota) / Osoka / Nu Van / Markel Bergara / Xarlem Creations / Zu+Ni / 10 bai / Mekanosa / Mausitxa / Pello Arrieta eta Javier Elorza / La Caixa / Herri Eskola / Kala loradenda / Sahatzu harategia / Jose Antonio ile apaindegia / Ikus optika / Yudego farmazia / Dori harategia / Gobike bizikleta denda / Unanue mertzeria / Ecenarro mertzeria / Beristain logistika banaketa / Viento sur gastroteka / Laboral banka seguroak /

Morkaiko mendizale elkarte / Beitia Arriola fisioterapia / Javi Muñoz / Salento jatetxea / Sigma jatetxea / Karkizano mertzeria

/Evoca oinetako denda / Merino konponketak / Oinez oinetakoak / Ametsa taberna / Jai alai taberna / King Kong taberna / Malape taberna / ElgoibART ( E. Arrillaga) / U. arrieta / Imanol Agirretxe / Bera Bera eskubaloit taldea / Alcorta F.G / Gemma Monreal / Zero Zabor ingurumen babeserako elkarte / Sanlo E.K.T / Fadek ile apaindegia / Alire / Urnabitza / Otzak kafetegia / 40-15 Tennis elkarte...


Elgoibarko Izarraren aldeko

# TONBOLA

Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara,  
Kalegoen plazan

Tonbolako gure lagunak





**U**

**2**

**R**

**0**

**T**

**1**

**E**

**4**

**K**

**B**

**A**

**R**

**R**

**E**

**N**

**R**

**I**

**A**

Daniel Alsina kataluniarrak irabazi zuen Elgoibarko Nazioarteko 23. Xake Txapelketa (Argazkikoa). Cristian Cruz perutarra saikatu zen bigarren postuan, eta Tanguy Ringoir belgikarra hirugarrenean. Txapelketa honetan lehen aldiz aritu zen elgoibartar bat, Gustavo Barrenetxea, hain zuzen ere.



Haritz Goikoetxearen (Mendaro, 1976) *Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako* izeneko lana saritu zuen Soziolinguistika Klusterrak, Hausnartu Euskal Soziolinguista Sariaren seigarren edizioan. Goikoetxeak EMUN kooperatiban dihardu lanean azkeneko bederatzirteotan, hizkuntza zerbitzuen alorrean. Besteak beste, euskaraz lan egiteak enpresari balio erantsia ematen diola nabarmendu zuen BARREN al-dizkariari eskaini zion elkarriketan.



Ugandar batek, Timothy Toroitich (Uganda, 1991), irabazi zuen estreinako aldiz Juan Murgertza Nazioarteko krosa, gizonetzkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, garaipen argia lortu zuen Munduko kros txapeldu-nordeak, Hiwot Ayalewk (Etiopia, 1990).

Zuhaitz Gurrutxagak Herriko Antzokia bete zuen. Antzezle gisa etorri zen San Anton Egunean, Txalo produkzioak ekoiztetxearen *Hiru* antzezlarekin, eta Herriko Antzokia bete egin zuen. Loli Astoreka, Miren Gojenola eta Ana Elordirekin batera igo zen aiastiarra Herriko Antzokiko taula gainera, eta estreinakoz herritarren aurrean antzeztu zuen.

GABON  
ZORIONTSUAK!

Elgoibarko Haurreskola  
943 742 141



HaUrreskoLak

www.haurrekolak.net





Kiko Rivera *Paquirrin*en musika emanaldia antolatu zuen Elgoibarko Vacuna elkarteak San Anton egunerako, eta mila bat lagun hartzeko karpa egokitu zuten Guass dantzalekua zegoen lekuan. Zeresan handia eman zuen musika emanaldia izan zen herrian, baina ez zituen bete antolatzaileen aurreikuspenak eta ikusle gutxi erakarri zituen. 1.100 sarrera jarri zituzten salgai, eta 580 saldu zituztela jakinarazi zuten. Antolatzaileek azaldu zutenenez, Elgoibarko giroa berpizteko asmoz ekarri zuten *Paquirrin*, Isabel Pantojaren kantore espainiarraren semea.



1936ko gerran Francoren tropek hil eta handik egunetara inguruko baseritarrek hobi komun batean lurperatu zituzten lau lagunak gorpuzkinak deshobiratu zituen Aranzadi Zientzia Elkarteak 2012ko ekainaren 16an, Zirardamendin, Elgoibar eta Markina arteko mugan, eta urtarrian jakinarazi zuten identifikatu zituztela haietako bi. Sabin Atutxa Olabarri 20 urteko bilbotarrarenak eta Eusebio Gaubeka Gibelondo adin bereko leioarrarenak dira Zirardamendin lur azalera ateratako gorpuzkinetako batzuk, Arana Goiri batailoiko Garaizabal konpainiako bi gudarirenak, hain zuzen ere.



Luis Arrieta Barrenetxea hil zen urtarrilaren 21ean, 1979. urtetik 1983ra Elgoibarko alkate izan zena. Francisco Franco Espainiako diktadorea hil ondorengo lehenengo udal hauteskundeetan eskuratu zuen alkatetza, EAJ alderditik. Politikaz gainera, enpresa munduan garrantzi handiko gizona izan zen Arrieta Elgoibarren, kooperatibismoan bereziki. Besteak beste, Eguzki lantegiko sortzaileetarikoa bat izan zen.

## TELLABIDE


### ITURGINTZA

Berogailuak  
Gasa

Aire egokitua  
Erregai likidoak

Azpilgoeta 7 behe - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 807 755 062  
iturgintzatellabide@hotmail.com

Gabon zoriontsuak!



## Arriola Aroztegia

Gabon zoriontsuak!

Garagartza kalea, 44  
Telf.: 629 258 172  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



## Maria Urizar

- Ileapaindegia  
- Solariuma

Gabon zoriontsuak!

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
mariaileapaindegia@hotmail.com



## USATORRE Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

GABON  
ZORIONTSUAK  
ICARO!

Santa Klara komentuari buruzko liburua idatzi eta argitaratu zuen Javier Elorza historialariak. XVI. Mendekoa da Klaratarren komentua, eta sorrerako eta-  
pari buruzko informazioa jaso du liburuan Elorzak.



Elgoibarko lurrazpiko sekretuak aztertzen urteak daramatza Elgoibar Espeleologia Taldeko Angel Maria Tobajasek eta lur azpietako kobazulo, mehategi eta tunelen inguruan bildutako informazio guztia PDF formatuan bildu, eta herritarren eskura jarri zuen Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian.



Espainiako Giza Eskubideen aldeko elkarteak 2013ko Giza Eskubideen Sari Nazionalarekin saritu zituen Marixabel Lasa, Txema Urkijo eta Jaime Arrese elgoibartarra, bakearen eta bizikidetzaren alde egindako lanagatik. Sari horrekin, bakearen alde egindako lana aitortu zieten, besteak beste, biktimen eta ETako kide ohien arteko aurrez aurreko harremanak bultzatu izanagatik. Sarituek Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Bulegoa kudeatu zuten aurreko agintaldi bietan, eta orduan egin zuten lana aitortu eta eskertu zieten.

Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan

[www.muruamendiaraz.com](http://www.muruamendiaraz.com)



Hamar urtez Debabarrenako odol emaleen elkarteko delegatu lanetan jardun eta gero, kargua laga zuen Gregorio Vivesek, beste batzuei erreleboa pasatzeko ordua zela iritzita.



Otsailaren 15ean hil zen Pako Iriondo Lizarralde (Elgoibar, 1926), bizia mendiari eman zion elgoibartarra. Jendetza handia batu zen Iriondori azken agurra ematera. Udaletxeko pleno aretoan egin zieten harrera hileta-elizkizunera kanpotik etorritako agintari eta mendizaleei. Denek izan zuten gogoan urteetan mendizaletasunaren ikur izan zen elgoibartarra. Besteak beste, Morkaiko mendizaleen elkarte sortu zuen Iriondok 1943an eta Euskal Mendizale Federazioko ohorezko presidentea, Espainiako Mendizale Federazioaren lehendakariordea eta Pyrenai- ca aldizkariaren sustatzailea izan zen.



Hegoak ebaki banizkio izeneko aurreproiektuak irabazi zuen Maalako estalpea aukeratzeko Udalak antolatu zuen ideia-lehiaketa. Iosu Gabilondo arkitekto elgoibartarra da proiektu irabazlearen egilea. Maal- a estaltzeko proiektuak 300.000 euroko aurrekontua du, eta udal ar- duradunen arabera, San Anton egunerako prest egongo da.



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 modulos  
Tel. 943 749 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldurak  
Zolak eratzeko  
Laketak: eguzi, aluminio, PVC,  
Pintura orokorra

GRUPO  
VILARCHAO



[www.bromymec.com](http://www.bromymec.com)

**BiM**



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

# **ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49 -1      Tel: 943 741 189



Ikurrinari gorazarre egin zioten martxoaren 7an *Geurea ikurriña* ekitaldi instituzionalean. Besteak beste, Jaime Arrese alkate zenak 1977ko urtarrilaren 19an udaletxeko balkoian jarri zuen estreinako ikurrina berreskuratu zuten ekitaldirako. Ikurrinari gorazarre egiteaz gain, EAEko Auzitegi Nagusiak Espainiako bandera jartzeko emandako agindua salatu zuten, "zeharka bada ere".



Danele Sarriguartek *Erraiak* liburua aurkeztu zuen. *Mamuak* aurreproiektuarekin irabazi zuen Igartza Saria, eta horren harira etorri zen Sarriguarteren lehenengo eleberria. Bikote haustura mingarri bat du oinarri liburuak, eta emakumearen ikuspuntutik kontatu du istorioa idazle elgoibartarrak.



Elgoibarko Udalak Urazandi, Kalamua, Artetxe eta Iñiguez Karkizao kaleetako Frankismoko ikurrak kentzea erabaki zuen. Ikur frankistak dituzten eraikineta-ko bizilagunei jakinarazpenak bidali zizkieten lehenik, eta euren kendu ez zituztenak udal langileek kendu zituzten.



Iñaki San Martin Soarte argazkilararen lan bat saritu zuten Galellako Festimage nazioarteko sariketan. 378 argazkilarik parte hartu zuten, eta guztira, 3.983 argazki aurkeztu zituzten sariketara. Soartek aurkeztu zuen *Aterki urdina* izenekoak ISF (Image Sans Frontiere) aipamena jaso zuen. *Motxo* itsasontsia ageri da argazkian, Debako Elorriaga auzoko Baratzazurre parajearen hondoa jo eta Deba eta Zumaia arteko labar horretan, biotopo babestuan, harrapatuta gelditu zen ontzia.



**Ondo pasa Eguberrietan!**

*Hamalaua badoa  
zintzo eta jator,  
xamur ez izan arren  
eutsi jako gogor.  
Prest gaozela dakigu,  
egongo gera hor.  
Zorionak Elgoibar,  
Hamabosta betor!*



Martxoan bukatu zituzten Txanakoako errotondako lanak. Une jakin batzuetan trafiko handia pilatzen zela-eta, errotonda biribila egiteko eskatu zieten Udaleko arduradunek Gipuzkoako Foru Aldundiari. 75.793,49 euroko aurrekontua izan zuen obrak.



Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) batzar orokorra egin zuen martxoan, Baionan, eta, besteak beste, datozen lau urteetarako lehendakari berria aukeratu zuten: Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarra. Elkartearen erronka nagusiak aipatzerakoan lau zutabe nagusi zerrendatu zituen: idazlearen presentzia sozializatzea, bistaratzea, gizarteratzea nolabait. Idazle profesionalen defentsa egitea. Autofinantzaketarako urrats berriak aztertzea eta idazle berriak erakartzea....

Eli Ibarra Athleticceko jokalaria elgoibartarrak 300. partida jokatu zuen Bilboko taldearekin liga txapelketan. Bera da Athleticen partida gehien jokatu dituen emakumea. Ibarra hamabi sasoi daramatza Athleticen, emakumeen taldea sortu zutenetik, hain zuzen ere. 32 urte dauzka, eta 336 norgehiagokak jokatu ditu Athleticen 2002tik hona: 300 Ligan, 25 Espainiako Erreginaren Kopan eta hamabi partida Europako txapelketetan.



Hamar bat metroko bizkotxoak egin zuen Pastelak taldeak, Kalegoen plazan, eta ondoren txokolate beroarekin banatu zieten herritarrei. Guztira, 1.300 bat razio banatu zituzten. Gipuzkoako zazpi gozogle ezagunek osatzen dute Pastelak taldea, tartean Elgoibarko Muruamendiaraz gozotegikoek.

**m mendaro**  
ikastola

Mendaro ikastolako TXOKOLOREN partez, zorionak eta urte berri on!

**talleres**  
**ZAILDU** S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!**

Santa Klara, 40  
Tel 943 74 07 60  
Faxa: 943 74 39 95



Aita Agirreko eskolaren etorkizuna definitzeko parte-hartze prozesua jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak. Eraikina egoera txarrean dagoela-eta, barrutik berritzeko asmoa du. Kultura, hezkuntza eta euskara batu nahi ditu Udalak Aita Agirreko eraikinean. Eraikinak etorkizunean izango duen erabilera zehazteko prozesu parte-hartzailea jarri zuten abian.



Zortzi ipuin gotiko liburua kaleratu zuen Jon Eugik. Izuaren generoan unibertsalak diren gai eta giroak ukitzen ditu Eugik, eta Edgar Allan Poe, Robert Louis Stevenson eta Bram Stoker dira ipuin-liburu honetako narrazioak idaztean aintzat hartu dituen eredueta batak. Kazetaria da Jon Eugi, eta orain arte abenturazko nobela bat (Piraten uhartea, 2009) eta haurrentzako ipuin bat (Animaliak, 2011) argitaratu ditu.

Euzko Gaztedik Elgoibarren ospatu zuen EGI Eguna apirilaren 12an. Eguna osoko egitaraua antolatu zuten: ikurrinaren igoera, herriko alderdikideei omenaldia, ekitaldi politikoa, herri bazkaria, pilota partidak, triki-poteoa, disko festa Oihan Vegarekin... Izaskun Bilbao EAJko europarlamentariak eta Andoni Ortuzar EBBko presidentek parte hartu zuten ekitaldietan.



Alberto Hijanok zilarrezko domina lortu zuen Espainiako Olinpiar Jokoetan. Fisikako Euskadiko Olinpiar Jokoak irabazi eta gero sailkatu zen Espainiako rako. Fisikan dituzten eza-gutzak neurtu zizkieten A Coruña jokatu zen txapelketan, eta Hijanok zilarrezko domina eskuratu zuen.

**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK  
MANU LEIZABE LOYOLA

GABON ZORIONTSUAK  
ETA URTE BERRI ON!

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD  
Salmenta eta zerbitzu teknikoa  
Erosario, 8 - Tel. 943 74 00 54





Eusko Jaurlaritzak 16 milioi euro banatu zituen enplegua sortzeko, eta Debabarrenak 345.000 euro jaso zituen. Elgoibarko Udalak jaso zuen diru hori, Debabarrenako Enplegu Planaren ordezkari gisa, eta eskualdean banatzeko ardura izango du. Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze eta Eibarren inbertituko da diru kopuru hori. 18 proiektu aurkeztu ziren, eta 16 pertsona kontratatu zituzten lanaldi osora, eta beste 15 pertsona lanaldi erdira.



Luis Alberto Hernando (Burgos, 1977) eta Maite Maiora (Mendaro, 1977) nagusitu ziren orain arteko Kilimon Trail mendi lasterketa jendetsuenean. Gainera, orain arteko markak ondu zituzten bi irabazleek. Antolakuntzak lasterketa gogortu zuen aurten go ediziorako, Gaintxipixako gaina gehituz ibilbidean, baina, hala ere, bi minutu eta erdian ondu zuen Luis Alberto Hernandok iaz Imanol Goñik ezarritako errekorra, eta beste horrenbeste egin zuen Maite Maiorak, ordura arte berak zeukan errekorra bost minutuan onduz.



Udal Artxiboko 1975. urtea bitarteko edukia digitalizatu zuten. Elgoibarko Udal Artxiboko dokumentu zaharrak digitalizatzen dihardu Jose Valderrey enpresak 2011tik hona, Euskadiko Artxibo Historikoaren laguntzarekin. Lehen bi faseetan 1346-1960 urte bitarteko dokumentuak digitalizatu zituzten, eta apirillean jakinarazi zutenenez, 1564 eta 1975. urte bitarteko 57 liburu digitalizatu zituzten.



elgoibar ikastola  
zuenzat eta zuekin  
eguneroko jardunean  
etorkizuna eraiten

**ZEZEN-BIDE**  
AUTO ESKOLA

**ORDUTEGIA**  
09:45etatik-12:15era  
15:00etatik-20:30era

**Gabon zoriontsuak!**

**INFORMA ZAITEZ!  
AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!  
IKASTARO TRINKOAK!**

**Euskarazko eta gaztelarazko klaseak  
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela**

San Frantzisko, 52 behea  
Tel. 943 742 720 - 20870 ELGOIBAR



Espainiako Ezinduen Txapelketako Slalom erraldoia irabazi zuen Gaizka Loiolak iazko eski denboraldian. Itsuentzako modalitatean hartu zuen parte Gaizkak, eta Dani Gavalda gidariaren laguntzarekin urrezko domina eskuratu zuen.



Makina erremintaren mendeurrenaren barruan, sektore horretako eragileek egindako lana errekonozitu zuen Elgoibarko Udalak. Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta makina-erremintaren sektoreko eragileak batu zituzten udaletxean, eta mendeurrenaren harira kalean jarritako erakusketa inauguratu zuten. Bolatokian atera zuten familia argazkia.



Elkartearen Plan Estrategikoa eta zuzendaritza talde berria aurkeztu zituen Elgoibarko Iazarrak, bazkideen batzar nagusian. 2014-2016 urteetan jarraituko dituzten lan ildo nagusiak aurkeztu zizkieten bazkideei, eta lan hori betetzen dela zaintzeaz arduratuko den zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zuten.



Unai Arrietak eskubaloia laga zuen denboraldia amaitzearekin batera. Hamazazpi urte egin ditu jokalaria elgoibartarrak eskubaloiko gorengo mailan, eta egindako ibilbideaz "harro" dagoela adierazi zuen.





Maila galdu eta Erregional mailara jaitsi zen Haundi, Liga amaizteko partida bat falta zela. Hamar denboraldi egin zituen Haundik 3. mailan, eta, bi denboralditan, gainera, 2B mailara igotzeko kanporaketak ere jokatu izan ditu.



Alberto Revueltak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, 10.000 metroan. Durangon jokatu zen proba eta 30 lagunek hartu zuten parte.



2015eko Udal Hauteskundeetarako alkategaia aurkeztu zuen EAJk: Ane Beitia. Medikuntza ikasketak osatu zituen Beitiak eta gaur egun prebentzio eta ergonomia teknikari lanetan dihardu Eusko Jaurlaritzan. 2010etik zinegotzia da Elgoibarko Udalean eta legegaldi honetan Euskara eta Barne Saisetako arduraduna da.



Amaren hiletara etortzeko baimena eman zioten Arnaldo Otegi, eta Elgoibarren izan zen. Gurasoen etxean izan zen, bost urte eta gero.

**NAVA**  
INPRIMATEGIA  
Santa Ana, 44 - ☎ 208  
Telf. eta Faxe: 943 744 451  
E-mail:nava@euskalnet.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Gabon zoriontsuak!*


**ZORIONAK eta Urte Berri On**

**Cristina Garcia**  
Estetika eta Terapia Naturalak

Errosario kalea 19  
943 74 29 50 • cgestetika@gmail.com



Felix Etxebarria *Parapani* buruzko liburu biografikoa idatzi zuen Xabier Lasa andoaindarrak, Etxebarria beraren suinak. Ekainaren 13an aurkeztu zuten liburua musika eskolan, eta senideez gain, herritar ugari batu ziren.



Elgoibarko Gizarteratze Mahaia aurkeztu zuten, bazterketa sozialaren eta gizarteratzearen esparruan aritzen diren hainbat erakundek. Bazterketa sozialaren inguruko topalekua izateko jaioa da

Elgoibarri aipamen berezia egin zioten makina-erremintaren biurteko azokan, Barakaldoko BE-Cen. Era berean, *Makina-erremintaren historia laburra* liburua aurkeztu zuten, mendeurreneko ekitaldien barruan. Argazkian, liburua aurkeztu zuteneko argazkia.



## Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezaren gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar  
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atentitzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



Gabon zoriontsuak!

Kontsultatu hemen Eguberrietako egutegia: [www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)



Gabi eta Sigma jateak saritu zituzten Elgoibarko Pintxo Lehiaketan. Pintxo onenaren saria eman zioten Gabiri eta herritarren saria jaso zuen Sigmak. 11.581 boto txartel zenbatu zituzten lehiaketan zehar eta antolatzaileak pozik agertu ziren herritarrek emandako erantzunarekin.



30 urteren ondoren, erretiroa hartu eta musika eskola utzi zuen Mari Jose Zubiaurrek. Udalak eta musika eskolak berak hainbat omenaldi egin zizkieten, urte horietan guztietan eginiko lana esker-tzeko.



Elgoibar eta mendarorrek erabakitzeke esku-bidearen aldeko giza katean hartu zuten parte, Gure Esku Dago mugimenduak deituta. Elgoibari eta Mendarori 32. eta 33. kilometroak osatzea egokitu zitzaizkien Bergaran, eta Durango eta Iruñea batzeko zereginetan lagundu zuten hainbat eta hainbat herritarrek.



# PAGOERROTA

iturgintza



- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)  
 Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Sakelakoa: 659 334 323  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com) - [pagoerrotita@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrotita@pagoerrotaiturgintza.com)

# ARBEOA

INMOBILIARIA

Gabon zoriontsuak!

[www.inmoarbeloa.com](http://www.inmoarbeloa.com)

San Frantzisko, 34  
 Tel.: 943 748 427



# karkizano

Gabon zoriontsuak!

San Francisco, 14  
 Tel.: 943 740 549  
 Elgoibar



Josu Mujika koreografo elgoibartarrak sortutako *Itsaslabo* txoriak, zoroen itsasoan lana aurkeztu zuten uztailean, Lekeition. Mikel Laboaren kantuetan oinarritutako lana da.



Jesus Mari Uncilla izendatu zuten CD Elgoibarko presidente. Edu Arrietak bete izan zuten kargu hori 2012az geroztik, baina arazo pertsonalak medio, iazko denboraldia amaitu aurretik utzi zuten kargua.



2007an atxilotu zuten Imanol Iparragirre presoak aske utzi zuten. 18/98 auziaren baitan kondenatu zuten, Ekin atalean. Aurrekua dantzatu eta lore sorta bat eskaini zioten herritarrek.



Kilometro bertikalen munduko txapelketan hartu zuten parte Iñigo Larizek, eta 26. postuan sailkatu zen. Espainiako selekzionatzaileak ez zuten hautatu korrikalari elgoibartarra, baina La Sportiva taldeetik jaso zuten munduko txapelketan parte hartzeko gonbidapena.



San Bartolome 30,  
Tel.: 680 724 060  
Plaza txikitik ere badu sarrera!  
[ibarrene@hotmail.es](mailto:ibarrene@hotmail.es)

ARTISAU-OGIA  
EGUR-LABEAN  
EGINDAKOA

KONTSERBAK  
ETA ARDOA

GABON ZORIONTSUAK!





Enpresa txiki eta ertainen berrikuntza aplikaturako Asmaola zentroa aurkeztu zuten. Orain dela lau bat urte hasi zen IMH Asmaola proiektua garatzen, eta 2015-2016 ikasturtean jarriko dute martxan.



Garai bateko usadioa berreskuratu nahi izan zuten Mendaroko Santana jaietan, eta koadrilen egunean mozorrotuta irten ziren mendarorak. Maite Maiorak eman zien hasiera jaiari, eta astebetez jai giroan murgildu ziren herritarrak.

Pilarreko aparkalekua maiatzean zabaldu zuten, eta uztailean hango hormak margotu zituzten. Graffiti auzolandegiak egin zituzten Elgoibarren, eta naturarekin zerikusia duen graffiti margotu zuten Pilarreko ikastetxea zegoen hormetan.



**AHOLKULARITZA**

**BIKAIN**  
ASESORIA

- ① Zerga-aholkularitza
- ① Lan-aholkularitza
- ① Kontabilitate aholkularitza

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: [bikain@fonocom.es](mailto:bikain@fonocom.es)

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR

**DOÑA MERCEDES**

San Frantzisko, 21  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 742 652  
943 742 137

*Jai zoriontsuak!*

**EMPAÑADAS · PIZZAS**  
**DOÑA MERCEDES**  
OBRADORA

**INPRIMATEGIA**

**Jasone**  
Distribución

San Ignazio, 1 • 20870 ELGOIBAR  
T. 943 53 17 45 • [jasone@jasonesg.com](mailto:jasone@jasonesg.com)  
[www.jasonesg.com](http://www.jasonesg.com)

*Jai zoriontsuak eta urte berri on!*

**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 ktia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizantzkoa) - Mikro pigmentazioa

171.000 euroko aurrekontuarekin prestatu zituen Udalak sanbartolomeak, aurreko urtean baino 31.000 euro gehiago, hain zuzen ere.



Gazteek elkarlanean antolatu zuten Gazteen Eguna, eta berrikuntza modura, Gazteen Eguneko bazkaria Kalegoen plazan egin zuten aurten.



50 urte bete zituen San Bartolome Eguneko soka-dantzak, eta urteurrenaren harira garai hartako dantzariak omendu zituen Haritz Euskal Dantzari taldeak. BARRENEK Luis Gurrutxaga eta Jose Otaegi bildu zituen errepor-taje batean, orduko aurraskulari eta atzezkularia, hain zuzen ere.



Iturri berria inauguratu zuten Giza Eskubideen parkean, eta iturria Kalegoen plazarekin harreman berezia izan zuen elgoibartar bati eskaini zioten: Gerardo Arriola *Pitxirri*. Pilotaria eta pilotagilea izan zen *Pitxirri* (1889-1979) eta haren oroimenezko harmarria jarri diote iturriari.

# zubacor

Gabon  
zoriontsuak!

[www.zubacor.com](http://www.zubacor.com) - [zubacor@zubacor.com](mailto:zubacor@zubacor.com)

Tel.: 943 740 844 - Faxa: 943 742 666





***Elgoibarko EAJ-PNVk eta  
EGIk jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
elgoibartar guztioi!***





Juanito Loiola hil zen, Mendaroko lehenengo alkatea izandakoa. 1983ko uztailaren 3an erabaki zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan Mendaro Elgoibartik eta Mutrikutik banatzea, eta Mendarori herri izaera ematea, eta urte hartako abenduaren 30ean osatu zuten Mendaroko lehen Udala.



Elgoibarko emakumeak eta industria: bizitza bat, hamaikalan izenburuko erakusketa zabaldu zuten Kultur Etxeko sotoan, emakumeek urteetan egindako lan ezkutua bistartzeko eta balioesteko Ondartes enpresak Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren enkarguz egindako lana.



Olaso industrigunea eta Sigma auzoa batzen zituen pasabidea eraitsi zuten. Kendutakoaren ordez, beste pasabide bat jarri zuten, eta irisgarritasuna hobetzeko, Olosoko aldean igogailua jartzeko asmoren berri eman zuten.



Bakarkako estreinako lana kaleratu zuen Jon Gurrutxagak: *Hitz Lauz*. Bakarka, baina lagunez inguratuta osatu zuen diskoa. Mikel Azkargorta, Iñigo Gorritxategi, Gorka Eskauriaza, Keu Agirretxea, Miguel Laguna eta Patxi Zabaleta elgoibartarra izan ziren, besteak beste, diskoan parte hartu zuten musikariak. Hamar abestiko bilduma prestatu zuen diskorako Gurrutxagak, eta kantu guztiak euskaraz dira.



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

**65\07**  
**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**  
**UZURI**

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### OTORRINOLARINGOLOGIA

**183\12**  
**UZURI**

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Frantzisko, 21  
Elgoibar  
Tel: 943 740 359



Memoria historikoa egiteko ahaleginean, hainbat ekitaldi antolatatu zituen Elgoibarko Udalak, zenbait kultur erakunderekin eta Eusko Jauriaritza eta Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiekin elkarlanean. Abuztuan, *Goazen gudaridano...* askatasun bidean izenburuko erakusketa zabaldu zuten, eta irailean izen bereko liburua aurkeztu zuten. 1936ko gerran Bizkaiko Golkoan hasi eta Elgetaraino luzatu zen frontearen bizi izan ziren gertakarien berri emateko sortu zuten guztia, baina bereziki Aiastiako lurretan izan ziren borrokak oroitzeko eta hemen gertatu zenak gerora izan zuen garrantziaz ohartarazteko. Patxi Juaristi eta Josu Chueca EHuko irakasleak, Aitor Esteban EAJren bozeramailea Espainiako Kongresuan, Iñaki Goigana Sabino Arana fundazioko artxibozaina eta Francisco Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkartearen zuzendariak egin zuten libururako dokumentazio lana. Liburua aurkeztu zuten aste berean izen bereko dokumentala ere aurkeztu zuten eta omenaldi hunkigarria egin zieten Aias-tian gudariei.



‘.eus’ domeinu-izenak eskatzeko abiarazte-aldia hasi zuten, domeinuak eskuratzeko lehen fasea. Abiarazte fasea elkarte, enpresa eta instituzio publikoen domeinu-izenei bideratu zuten, domeinu-izenak dagokienei ematea ziurtatu nahi zutelako. Izen horiek guztiak abenduaren 3an aktibatu zituzten, tartean gureak: ‘barren.eus’ eta ‘elgoibarkoizarra.eus’.



Igartza literatura sorkuntzako beka irabazi zuen Unai Villenak (Elgoibar, 1980). Hogeita bi proiektu aurkeztu zituzten aurreten eta Villenaren *Hauts haieztatik* nabarmendu zuen epaimahaiak. Sari-tutako lanean, drogen menpekotasuna eta eskizofrenia dituen mutil baten eta bere lagun baten arteko harremana kontatzen du. Villenak 6.000 euro jaso zituen liburua idazteko.

## HORTZ KLINIKAK

### 171\12 LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higijena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

## FISIOTERAPIA

### 271\12 AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea- Elgoibar  
Tel.: 943 531 953 - Tel.: 669 565 745

### 177\12 fisio&más

- Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea**
- Esku-terapia.
  - E.P.I ® (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
  - Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopatikoa:
  - + Traumatologia.
  - + Estetika (zelulitisa, estriak)

**Osasunerako ariketa agindua**  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

### Entrenamendu gidatua

**Pilates makinak**  
(errehabilitazioa) 3 pertsona gehien.

**Txirrindulariaren biomekanika** (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628

Torturak eta eraso sexistak salatu zituen Ainara Ladron elgoibartarrak Espainiako Auzitegi Nazionalean, Murillo epailearen aurrean. Segiko kide izatea egotzita hasi ziren Ladron epaitzen, beste 27 lagunekin batera.



Jose Mari Ondarza abenturazale elgoibartarrak *Rio Gorabera* liburua kaleratu zuen, barren-barenetik idatzitako liburua. Bere bizipen eta abenturak jaso zituen liburuan, umorez eta idazkera estilo bizian.



Asier Lizarralde Arrillaga elgoibartarrak irabazi zuen gazteentzako Asmaola+ enpresa industrialen ideia lehiaketa, zuhaitzak inausteko makina automatiko batekin. Lizarralde 2.500 euro jaso zituen eskudirutan, eta horrez gain, proiektua gauzatzeko beste hainbat erraztasun ere jaso zituen.



Jaime Arrese UCDko batzarkide ohia omendu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Komando Autonomo Antikapalistek hil zutela 34 urte bete ziren egunean (urriaren 23an). Carmen Araolaza alargunak, Jaime semeak, Fermin eta Carmen anai-arrebak, eta ordezkari politiko ugari hartu zuten parte omenaldian: Lohitzune Txarola Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentetarik, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Marina Bidasoro Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendariak eta Batzar Nagusietan ordezkari-tza duten talde guztietako ordezkariak.

## IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI

Elgoibar Arreiturre BHI-ren  
izenean Gabon-jai eta  
Urteberri zoriontsuak  
opa dizkiezuegu.

*Eguberri on!*

*Gaban garainaz puzuz beteta  
hartu ohi dugun artean  
maitasuneko oho batean  
leak hartuz gaurera  
etxea isar, isarrek etxe  
guztiek elkartuz gero  
gustasunaz mantentzen ditugun  
buru ta bihotzak bevo.*

Maddi Mendibil Artebe (ZBI)

Leire Rodriguez de Gabriel • 1º A





Goratu enpresaren pabiloia miatu zuen Guardia Zibilak, erabilera bikoitzeko tresnak Asiara saldu zituztelakoan, tartean Iranera. Nazio Batuen Erakundeko Seguratasun Sailak bahimendua jarrita dio Irani eta hara saltzeko baimen bereziak behar dira. Enpresa miazteko agindua emateaz gain, zuzendaritzako hiru kide deklaratzera beitu zituen epaileak. Zuzendaritzakideek deklaratu zuten egun berean Goratuk gezurtatu egin zuen Iranera saldu izana. Legeria "zorroz" betetzen dutela nabarmendu zuen enpresak.



Egunkariaren auzi ekonomikoa betiko itxi zuen Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak, preskribituztat jota. 11 urte eta hiru hilabeteren ostean, bukatu zen, beraz, auzia, baina Egunkaria itxita dago 2003ko otsailaren 20az geroztik



Espainiako mendi lasterketen Kopa irabazi zuen Maite Maiorak, eta Limone Extrem, Munduko Kopako azkeneko proba puntuagarria irabazita, Munduko txapeladunordea izan zen, dena asteberu bakar batean.



Bateragune auzia salatzeke eta kartzelaturako bost lagunei eta haien senideei elkartasuna adierazteko manifestazio nazionala egin zen Elgoibarren, Arnaldo askatu, politika askatu plataformak deituta. Jendetza handia batu zen, tartean kultura, gizarte eta politikako ordezkariak anitza.

**TANTAKA**  
TABERNA

**ENTSALADAK  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK  
RAZIOAK**

*Urte berri on!*

Aita Agirre, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 030 736

**HAIR'S**  
ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN  
JUBILATUEN  
EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €



Sabin Osoro (Elgoibar, 1922) elgoibartarrak irabazi zuen Gure Baloak saria. Gizarte eta enpresa alorreko hamaika ekimenei lotuta ageri da bere izena Elgoibarren, eta ekintzaitetasun hori, lanerako agertu duen "izaera nekaezina eta adoretua" nabarmendu zituen epaimahaiak. Carmelo Urdangarien eskutik jaso zuen saria.



Espainiako Mendizale Federazioko alpinista gazteen taldeak, tartean Alberto Fernandez elgoibartarrak, Pura Vida izeneko bidea ireki zuen Nepalen, Sakaton Peak mendian (6.325). Bide berriak 1.300 metroko desnibela du, eta M5 graduko zailtasuna eta 80 graduko malda izotzetan. Orokorran MD+ zailtasuna du.



Euskadiko Ehiza Xeheko txapelketa irabazi zuen Arkaitz Egañak, Zambranako ehiza barutian, Sol txakurraren laguntzarekin. Gipuzkoako txapelketa irabazita sailkatu zen Euskadikorako, eta Euskadikoa irabazita, Espainiako txapelketa jokatzeko sailkapena eskuratu zuen.



Imanol Garaizabalek irabazi zuen orientazio probetako Euskal liga, bigarren urtez jarraian. Aaron Garmendia laudiotzarrarekin bikote osatuta parte hartu zuen Garaizabalek txapelketako proba guztietan.




**PNEUMAX**, S.A.

AUTOMATIZAZIO  
NEUMATIKORAKO  
OSAGAIK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR  
Teléfono: 94374 41 44 - 943 74 41 74  
Telefax: 943 74 40 76  
E-Mail: pneumax@pneumax.es  
Web: www.pneumax.es



*Gabon zoriontsuak  
herritar guztioi!*





Aitziber Olaizolak Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa irabazi zuen, bost txirlorekin. Bikotekako sailkapenari dagokionean, bestalde, Aiastiako bi bikote sailkatu ziren lehen bi postuetan: Jabier eta Imanol Osoro eta Xabier Loliola eta Angel Ibarluzea.



Mausitxako gaztak irabazi zuen Ordizia Txapelkun gazta lehiaketa. 2005etik 2014ra Ordizia-ko gazta txapelketa entzutetsua irabazi duten gaztagileek hartu zuten parte, eta Mausitxako-ak jaso zuen puntuaziorik onena.



Hamabost egunen barruan bi auto jausi ziren A8 autobidetik bidegorriraino. Bi istripuetan Bilborako noranzkoan zihoazen autoak jausi ziren, baina zorionez ez zen ezer larririk gertatu, ez batean eta ez bestean.



Jasone Osorok Augustin Zubikarai nobela-beka irabazi zuen, *Sick* izeneko proiektuarekin. Berta izeneko emakume baten eguneroko 24 orduak kontatzen ditu urtebeteren buruan aurkeztuko duen liburuan.

**ASESORIA GOAR**

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
asesoria@asesoriagoar.com

**AGURTZANE** c.b.

*ileapaindegia*

**Fotodepilazioa egiten dugu**

**GABON ZORIONTSUAK!**

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

**Txintxo**  
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 742 674

**Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset  
Digitalean

Sakontza gonbidapenak  
Hiletako orriak  
Bisita txartelak  
Kartelak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Kolonetan  
Txuri-belbean

**GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI**

Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagas@outlook.com

500dik gora lagun batu zituen *Kataiak* ikuskizunak. Aitor Nova musikari elgoibartarrak sortu eta sustatutako ikuskizun honek museoko makinaren hotsak, sei musikariren zuzeneko musika, soinu elektronikoak eta irudiak uztartu zituzten, makina-erremintaren iragana, oraina, eta etorkizuna irudikatuz.



Euskararen Nazioarteko Egunean ospakizun ugari izan ziren Elgoibarren eta Mendaron ere, baina ikusgarriena Elgoibarko Izarrak beste hainbat eragilerekin batera antolatu zuen flash-moba izan zen herbadara.



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Andres Alberdiren *Ahoskera* liburua argitaratu zuen, EIMA Euskal Ikasmaterialgintzarako estilo-liburuko bederatzigarren liburukia; bildumako bere hirugarrena.

'*Elgoibarko hiri bila-kaera*' izenburuko liburua aurkeztu zuen Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak. XX. Mendeko azken bi hamarkadetan Elgoibarren hirigintza alorrean egin diren obren errepassoa egin du liburuan.



Euskal Eskola Publikoaren jaiak aurkeztu zuten. Ekainaren 7an ospatuko da, Elgoibarren, eta *Gustatzen jata, gustatzen jaku* da egun horretarako aukeratu duten leloa.



Abenduaren 31ko kanpaikadak Elgoibarren grabatu zituen Euskal Telebistak abenduaren 12an. Lau orduko jai-giroa sortu zuten telebistakoek ordubeteko saioa grabatzeko.

*Elgoibar. Garai gatazkatsu baten kronika. 1765-1825* izenburuko liburua idatzi zuten Pello Arrieta eta Javier Elorzak [abenduaren 26an dute aurkeztekoa]. Madrilgo Liburutegi Nazionalean eskuratutako 1798ko mapa edo agiri grafiko bat osatze aldera hasitako lanaren emaitza da liburua.





*Uste duzuna  
baino gehiago!*

**ARANTXA ETA MARIAN  
FRUTADENDA**  
TEL.: 943 744 440  
Zure fruta eta barazkia  
dei batean etxean!

**MARY  
HARATEGIA**  
TEL.: 943 743 681

**AMAIA  
FRUTADENDA**  
TEL.: 635 704 712  
Etxeko banaketa,  
fruta eta barazki  
freskoak zure etxean!



**M. ANGELES  
FRUTADENDA**  
TEL.: 605 674 428  
680 989 487

Zure etxera  
banatzen dugu!

**TXILARRE barazkiak  
ELIKAGAI EKOLOGIKOAK**  
TEL.: 635 008 496  
Salmenta zuzena!  
Baserritik etxera!

**ZABALA  
FRUTADENDA**  
TEL.: 943 744 295  
Etxeko salmenta zuzena!

*Urdaiazpiko Iberiko  
eta ardoen zozketa!*

*Abenduaren 22an  
zozketatuko ditugu!*

*Gabon  
zoriontsuak!*

# Argia, lurralde gatazkek, gerrak eta inbasioek ilundutako aroari



Javier Elorza eta Pello Arrieta.

**Elgoibar. Garai gatazkatu baten kronika. 1765-1825 izenburuko liburua argitaratu dute Pello Arrietak eta Javier Elorzak, elkarlanean. Urte horietan lurralde gatazkek eta liskarrak izateaz gain, gerrak eta inbasioak ere jasan zituen Elgoibarrek eta horien kontakizuna ere egin dute, hein handi batean Ignazio Bartolome Muguruza Iriondo pertsonai ilustreak bere garaian Madrilera bidalitako agiri grafiko baten arrastoan egindako ikerketa-lana baliatuta. Hilaren 26an aurkeztuko dute liburua, Musika eskolako auditoriumean (19:00), baina aurrez hainbat argibide eman dizkigu Pello Arrietak.**

## Noiz eta zerk bultzatuta hasi zireten honetan?

2010ean erretiroa hartu ondoren, mendiko ibilaldiak hasi genituen Pedro Mari Andonegi eta biok. Argazki kamera eta grabagailua hartuta ibiltzen ginen hara eta hona, Elgoibarko mendi bazterrak eta baserri-inguruak ezagutzen. Gure ibili horietan oso jende interesgarria ezagutu genuen eta oso elkarrizketa politak egin genituen. Hala genbiltzala, goiz batean, Javier Elorza artxibozain eta lagunarekin topo egin genuen Pedro Marik eta biok, eta hark esan zigun Madrilgo Liburutegi Nazionalean Elgoibarko plano interesgarri bat aurkitu zuela, plano mutu bat, eta galdetu zigun ia lagunduko ote genion plano hari izenak jartzen, ia lagunduko ote genion baserriak, errotak, burdinolak, elizak, Altzolako etxeak, Mendarokoak mapan kokatzen. Halaxe ekin genion lanari, Pedro Mariren etxean lehenengo, garai batean *señorita Anitaren* akade-

mia izan zen hartan, eta jarraitu genuen gero Javierren etxean. Lan horretarako jende askorekin batu ginen, tartean Arantza Berasaluze, Maritxu Loiola, Kontxita Zabala, Felix Aranbarri, Sabin Zabaleta, Pedro Lariz, Pedro Arroite, Bitorio Agote, Mari Jose Leiaristi, eta Iñigo Agirre geografoarekin ere. Oso lagungarri izan zitzaizkigun, eta ezer baino lehen, eskerrak eman nahiko nizkieke gu hiruron izenean. Mapa hori osatzeko, hara-hona asko egin genituen. Idortorbe, Moru eta Arrate bitartean dagoen errekatxora, esaterako, behin baino gehiagotan joan ginen hango erroten aztarnak ikustera. Mapa bukatzeaz geneukala, baina, pentsatu genuen komeniko zela hari testuinguru bat ematea ere, eta Javierrek eta biok heldu genion lan horri.

**Mapa mutu hori Madrilgo Liburutegi Nazionaletik ekarri zuen Javier Elorzak. Nolatan zegoen han?**

Tomas Lopez ilustratu madrildarrak Espainia osoko atlas bat egin nahi izan zuen bere garaian, eta udaletara galdetegi bana bidali zuen informazio eskean. Gipuzkoatik, Elgoibar izan zen Udal bakarra era hone-tako mapa bidali ziona. Eta zergatik bidali zuen Elgoibarrek bakarrik? Bada, Elgoibarren bazelako gizon bat, Ignazio Bartolome Muguruza izenekoa, oso trebea zena halako gauzetan. Oso ondo ezagutzen zituen Elgoibarko bazterrak eta ohituta zegoen krokisak-eta egiten.

**Bazen nor Ignazio Bartolome Muguruza hura itxuraz. Atal oso bat eskaini diozue liburuan. Zerk egiten zuen horren berezi?**

Zalduna zen Ignazio Bartolome, kapela, txistera eta ezproiekin ibiltzen zen haietakoa, eta sortzez Sallobente-Ermuaren auzokoa zen. Baserri askoren jabea zen Elgoibarren. Herriko alkate izan zen hainbat urtez, eta kanpo harremanetarako Udalaren ordezkaria ere bai. Bera batzar-tzen zen Frantziako jeneralekin, Espainiako armadako buruzagiekin... Izan ere, Elgoibar Errege bidean zegoenez, Frantzia eta Gaztelako Erreinua lotzeko bide nagusian alegia, Espainiako eta Frantziako arma-den tropak askotan izan ziren gurean, garai gatazkatsua izan baitzen hura. Obretako maisua ere izan zen Ignazio Bartolome, tituluduna -gaur egungo kontratisten parekoa-, eta Errege bidea egiten ere ibili zen. Ez zen arkitektoa eta bere gaintik bazituen beste batzuk, baina

ardurako lanak bete zituen berak ere. Lur-neurtzailea ere izan zen, gaur topografo esaten duguna, eta lan handia izan zuen, gainera. Kontuan izan behar dugu udalak (gurea eta inguruko beste zenbait ere bai) lur-sail handiak saltzera behartuta egon zirela armadekin-eta zituzten zorrak ordaintzeko, eta lur horiek guztiak neurtu egin behar izan zituzten. Herri-lur ugari galdu zituzten orduan kontzejuek eta herriek, partikularren mesederako. Neurketetan ibili zen bitartean, toponimo ugari ere jaso zituen gure gizonak, eta ez orain iker-tu dugun garai honetan bakarrik, aurretiagokoak ere jaso zituelako. Hori guztiaz gain, diputatu ere izan zen, esan bezala, garai oso zailean.

**Historialariontzat baliagarriak diren makina bat idatzi laga zituen Ignazio Bartolomek. Bazuen historialari senik ere, beraz.**

Artxibozaina ere izan zen-eta. Artxibotik jakin genuen, esaterako, Elgoibarko plano hori berak bidali zuela Madrilera, eta horregatik, iruditu zitzaigun haren biografia ere jaso behar genuela liburuan. Hasi ginen haren arrastoan, eta Elgoibarko artxiboan bertan, paper asko topatu genuen gizon horrek eskuz idatzi eta sinatutakoak. Tartean kontu pertsonal ugari, adibidez militarrek alaba bortxatu zioteneko kontuak edo eta etxea erre zitzaionekoak. Zehaztasun handiz kontaktzen ditu horiek eta baita beste kontu kurioso asko ere bai, adibidez, udaletxe aurreko etxea -eraikin osoa-, San Bartolome kalera ematen duena, berak erosi ziola Udalari, zorrak kentze aldera enkantera atera zuenean, eta hor Espainiako jeneralak eta Napoleonen jeneralak ere izan zirela. Hogei egunean jateko zer eman zien ere idatzita laga zuen. Artxibo zaina zen, eta bokazio handia zuen gainera. Horregatik apuntatzen zuen dena horrenbesteko zehaztasunarekin. Horregatik eta gero Udalari kontuak hartzeko ere bai.

**Bera jaio eta hil arteko tartea aztertu duzue eta garai gatazkatsua izan dela eraman duzue izenburura. Zer gertatu zen, bada?**

Gauza asko. Ignazio Bartolome jaio eta sei urtera, 1766an, benetako

matxinada izan zen, bizitza garestitzeagatik klase apalek egindako altxamendua. Apiril aldera altxatu ziren hemen, eta matxinada hark Madril-en izan zuen bere aurrekaria, martxo aldera altxatu zirelako han [Esquilacheren mutina delakoa]. Kontua da uza txarrak izan zirela aurreko bi urteetan, eta hemen jauntxoak zirela baserri gehien jabeak eta baserrietan bizi zirenak, berriz, maizterrak zirela eta azken horiek errenta altuak ordaindu behar izaten zituztela, garitan eta artotan. Baina ez zegoen ez garirik eta ez artorik, eta herritarrak goseak zeuden. Gutxi egotean, gainera, salneurriek gora egin zuten, eta jauntxoek, herritarrak goseak zeudela jakinda ere, kanpora eramaten zituzten jaki haiek, kanpoan garestiago saldu zitzaizketelako. Behar larriak altxarazi zituen herritarrak, bestela pentsaezina litzatekeelako matxinada bat menpekoen garai hartako gizarte hierarkiko hartan. Eta jo zuten Udalera, jauntxoekin kontra, haiek zutelako aginpibidea. Haren ostean, 1794an, Konbentzio Gerra lehertu zen Frantzian. Luis XVI. errege borboindarra gilotinatu zuten Errepublikarrek, Robespierren aldekoek, eta orduan Espainiak, Austriar inperioak, Portugalek eta abarrek gerra deklaratu zioten Frantziari eta eragina Gipuzkoan ere igarri zuen. Soldaduak hemen ibili ziren eta harpilaketak egin zituzten baserrietan-eta, eta gainera, zergek gora egin zuten, herritarren egoera are gehiago zailduz.

Independentzia Gerra etorri zen ondoren (1808-1813). Espainia guztiko konpainia eta batailoiak pasatu ziren Elgoibartik, eta hemen akantonatzen zirenean, herritarrek jaten eman behar izaten zieten. Sekulako inposizioa jasan behar izan zuten. Frantziaren kontrako gerra odoltsuaren ondoren, XIX. mendea Hirurteko Liberalarekin (1820-23) amaitu zen, Gerra Karlisten aurrekaria izan zen gatazkarekin. Espainiako estatuan sistema absolutista zegoen ordura arte, baina

1820ko urtarrilaren 13an Riego altxatu zen Cabezas de San Juan-en (Sevilla) eta martxoan Fernando VII.ak Cadizko Konstituzioa sinatu eta behin-behineko Batzorde Aholkularia osatu zuen, errejimen forala ezeztatuz. Horrek eragina izan zuen hemen ere, noski, batzuk absolutistak zirelako eta beste batzuk liberalak, eta tirabira horretan gerrillak antolatu zituztelako.

**Liburu hau idazteko artxiboetan pasatu dituzuen orduetan seguru topatu duzuela beste baterako gaia. Zer duzue orain eskuartean?**

Material asko daukagu erreserban, bai, baina ez dugu pentsatu zer egin. Buruan ideia batzuk baditugu, baina garbi ezer ez. 2016an 300 urte beteko dira San Bartolome parrokian lehenengoz meza eman zenetik, eta era berean, San Frantzisko konbentuak ere bosgarren mendeurrena beteko luke 2016an, eta nahiko genuke zerbait egin. Eta pertsonalki saiatu nahiko nuke gure Javier Elorza konbentzitzen 2016rako Elgoibari buruzko beste liburu bat idazteko, herria sortu zenetik [Villamayor de Marquina] XVI. mendera artean gertatu zena kontatzeko. Izan ere, gure artxiboan ez dago XVI. mendea aurreko informaziorik eta berak garai horretako informazio asko bildu du han eta hemengo artxiboetan. Badakit lanean ari dela eta esana diot gustura lagunduko nio-kela behar izanez gero, argi lagata meritu guztia berea dela, izugarriko lana egiten ari delako urteetan gure Javier.

**urkotronik**  
OSTALARITZAN ETA  
VENDING-EAN ADITUAK.  
1983 GEROZTIK.

**ZORIONAK  
ETA URTE BERRI ON!**

[www.urkotronik.com](http://www.urkotronik.com) | 943 203 112 / 902 127 137  
urkotronik@urkotronik.com

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tel.: 943 741 011

**URTE  
BERRI  
ON!**

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

**Zatoz informazio eske!**

**ITURRI  
TABERNA**

Foruen plaza, 5  
Tel.: 943 257 448

**PINTXO HOTZAK ETA BEROAK  
RABAK,  
RAZIOAK,  
OGITARTEKOAK**

*Ez dugu izaterik aske haiek gabe...  
MAITE ZAITUZTEGUI!*

**Softlan S.L.**

Albitxuri industriagunea, 3i  
20870 Elgoibar - Gipuzkoa  
943 748 105

[www.softlan.biz](http://www.softlan.biz) - [www.softlan.eus](http://www.softlan.eus)  
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak  
eta 2015 urte emankorra!*

**Enpresetarako Software-an  
espezializatuak**

ERP, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMa,  
Fakturatzea, Kontabilitatea,  
Lanparteak jasotzeko Programa,  
Neurrira egindako Programak, Hardware,  
Segurtasun informatikoa.

[www.softlan.biz](http://www.softlan.biz) - [www.softlan.eus](http://www.softlan.eus)

## ‘Euskaldunak Elgoibarren’ liburua aurkeztu du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak

BARRENEK eta Elgoibarko Izarran erosi daiteke liburua

**E**uskaldunak Elgoibarren liburua argitaratu du Elgoibarko Izarrak, Danobatek eta Elgoibarko Udalak diruz lagunduta. Elgoibarko Izarrak 50 urte bete zituen 2013an, eta horren harira sortu zen liburua idaztearen ideia. Elkartearen historia jasotzea baino gehiago, Elgoibar eta euskara batzea izan da oraingoan helburua. Euskarari dagokionean Elgoibar orain dela 50 urte, gaur egun eta hemendik 50 urtera nolakoa izan den eta izango den azaldu dute batetik. Bestalde, elkarteak 50 urteotan izandako ibilbidea ere laburbildu dute, eta 50. urteurrenak ere badauka tartea liburuan. Azkenik, inguruko herrietatik Elgoibar eta Elgoibarko Izarra nola ikusten duten ere jaso dute. Liburuak sei atal ditu,



eta atal bakoitza elkarteko bazkide batek idatzi du, Imanol Larrañaga elkarteko dinamizatzaileak koordinatuta. Eguazten arratsaldean egin zuten liburuaren aurkezpena atal arduradunek eta liburuan agertzen

diren hainbat protagonistak ere hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian.

Nahi duenak Elgoibarko Izarran eta BARRENEK erosi dezake liburua, 10 euroan (Elkarteko bazkideek, 8 euro).

### Agortu dira Elgoibarko Izarraren bertso saiorako sarrerak

Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso saiorako sarrerak agortu dira, beraz, Herriko Antzokiko lehiatilan ez dute sarreraik salduko. Abenduaren 26an izango da bertso saioa, 22:15ean hasita. Uxue Alberdi bertsolari elgoibartarra arituko da gaiak jartzen, eta Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Jon Maia eta Anjel Mari Peñagarikano etorriko dira kantura.

### 2015eko bederatzi mila egutegi banatuko ditu Elgoibarko Udalak



Asteartean aurkeztu zuen Udalak 2015eko egutegia. Marrazki eta argazki lehiaketa antolatutako Udalak egutegia osatzeko, eta hilabete bakoitzean marrazki eta argazki bana agertuko dira. Argazki

lehiaketan 47 herritarrek hartu dute parte, eta 207 argazki aurkeztu dituzte guztira. Hauek dira irabazleak: Larraitx Zialtzeta, Ander Izagirre, Alberto Fernandez, Ion Zubiaurre, Mikel Zengotita, Zorione Elorza,

Sara Beristain, Oier Ramos, Ana Loyola, Miren Gurutze Ariznabarreta, Ion Martinez, Maite Loiola. Marrazki lehiaketan, aldiz, LH5eko 113 ikasleek parte hartu dute, eta hauek saritu dituzte: Sasha Kovalenko, Ane Arregi, Alexandra Bocskor, Henar Saintin, Garazi Ines, Jone Gil, Naiara Vargas, Eider Ansola, Nora Barrenetxea, Naroa Gomez, Oihana Agirregomezkorta eta Miren Armentia.

Bederatzi mila egutegi banatuko dituzte, sei mila txiki eta hiru mila handi. Egutegi txikiak etxeetako postontzietan banatuko dituzte, eta handiak elkarte, eskola, erakunde eta abarretan. Kultur Etxean eta Arreta Bulegoan ere eskuratu daitezke.

## Eguaztenean etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi opariak banatzera

Goizez irtengo dira kalejiran Mendaron eta Elgoibarren

**A**benduaren 24an etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi opariak banatzera. 11:00etan hasiko da kalejira Mendaron, eta 11:30ean Elgoibarren.

Azken urteotan bezala, kantuan hasiko dute eguna Elgoibarko Izarrako kideek. 9:15ean hasiko dute diana Kalegoen plazan, eta kantuan pasatuko dituzte Elgoibarko kaleak. Ondoren, 11:30ean Olentzero eta Mari Domingiren kalejira hasiko da. Kalegoen Plazan hasi, San Bartolome kaletik pasa eta Kultur Etxean dantza herrikoiak egingo dituzte. Errosario Kaletik jarraitu eta Kalegoen Plazan amaituko dute ibilbidea. Segidan, umeen gutunak jasoko dituzte.

### Mendaron, 11:00etan

Azpilgoetan hasiko dute kalejira 11:00etan, Mañuskako iturri ondoan. Handik Garagartzaruntz abiatuko dira, Plaza gurutzatu eta txaletetatik aurrera pasata, San Josera iritsiko dira. Fron-



toian amaituko dute ibilbidea, eta han jasoko dituzte umeen gutunak. Segidan, ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte.

## Urtarrilaren 5ean iritsiko dira Errege Magoak Elgoibarrera eta Mendarora




18:00ak aldera iritsiko dira ekialdeko Errege Magoak Elgoibarrera. San Bartolome parrokiako estalpean jaio den Jesus haurtxoa gurtzera etorriko dira, eta ondoren, herri osoa zeharkatuko dute, herritarrei gozokiak banatzen. San Lazaro egoitzan geldialdi berezia egingo hango kideei opariak banatzeko, eta gero, Kalegoen plazara itzuliko dira. Hurrengo egunean kristau ikasbideko mezan hartuko dute parte Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek.

Mendaron 18:30ean hasiko da Errege Magoen kabalgata, Azpilgoetan, sastreria parean. Herria zeharkatu ostean, frontoian jasoko dituzte umeen gutunak.

### Jon Gurrutxagak kontzertua eskainiko du domekan, sotoan

Sinuosek antolatuta, *Hitz lauz* diskoa aurkeztuko du Jon Gurrutxagak domekan, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etatik aurrera. Soinu akustiko eta elektrikoan grabatutako hamar abesti biltzen ditu diskoak, eta blues-aren eraginik ere baduen arren, rock estiloan oinarritzen da lana. Kantuak gitarra akustikoa-rekin sortu ditu, eta orain arte egin duen lanik "intimistena" da. Arima Beltzarekin eman zituen lehen pausoak Jon Gurrutxagak, bateria eta ahotsean. UEK-ekin bi disko grabatu zituen eta Andrankan taldearen lehen lanean parte hartu zuen ondoren, bateria eta koroetan. Abesteko zuen gogoari erantzunez, Jon & Sugramas izan zen bere hurrengo proiektua, eta orain bakarka dihardu.



### Agortu dira Pirritx eta Porrotxen saiorako sarrerak

Astlehenean jarri zituzten salgai Pirritx, Porrotx eta Marimotos pailazoen saiorako sarrerak eta berehala agortu ziren. Bi saio eskainiko dituzte Herriko Antzokian, urtarrilaren 2an: 16:30ean eta 18:30ean. *Txo, Mikmak Txikia* ikuskizuna aurkeztuko dute. Txo Mikmak indioa da, itsasoaren beste aldetik iritsitakoa. Berarekin eta aitona Rokerekin batuko dira pailazoak, mundua aldatzeko.

## Lau boletotik batek saria izango du Elgoibarko Izarraren tonbolan


Abenduaren 24an zabalduko dute tonbola, 11:00etan

**E**lgoibarko Izarrak tonbola jarriko du bigarren urtez, abenduaren 24an. Erakunde publikoen diru-laguntza jasotzen du kultur elkarteak, baina elkarte ekonomikoki bideragarri egiteko erronkari aurre egiteko autofinantzaketa sustatu nahi dute, eta beste hainbat ekintzen artean, tonbola jarriko dute aurten ere Kalegoen plazan. 11:00etatik aurrera salduko dituzte boletoa, eta lautik batek saria izango du. Boletoa euro batean jarriko dituzte salgai, eta denetarikopariak eskuratu ahal izango dira: bizikleta, jantziak, jateko produktuak, kirolerako materiala... Herriko elkarte, merkataria, taberna, jatetxe eta norbanakoek emandako opariekin prestatu dute tonbola, eta antolatzaileek eskerrak eman dizkiete opariak eman dituzten guztiei.



Tonbolarekin batera, txosna ere jarriko du elkarteak Kalegoen plazan bertan. Edanaz gain, taloak ere salduko dituzte.

## Eduardo Arrillaga argazkilaria lan bat saritu dute Asisafoto nazioarteko lehiaketan



Edu Arrillagaren *Baseballland* izeneko argazkia saritu dute Asisa nazioarteko argazki lehiaketaren seigarren edizioan. Herrialdean hamabi ikastetxe daude heziketa eta beisbola uztartzen dituztenak, eta horietan ikasten ari diren umeei argazkiak ateratzen aritu zen argazkilaria elgoibartarra. Hiru kategoriatan banatuta dago lehiaketa: gai librean ateratako argazkiak, natura eta haurtzarora eta amatasuna. Azken kategoria horretan jaso du aksesita Arrillagaren *Baseballland* argazkiak: 300 euroko saria. 118 argazkilarik aurkeztutako 648 lanekin lehiatu behar izan du Arrillagaren lanak.

Hamar urtez jardun zuen Arrillagak Dominikar Errepublikara bidaiatzen, eta 2008an egin zuen azken joan-etorria.

## Urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte

Jubilatuena astea ospatu zuten joan zen astean zaharren bil-tokian, eta beste hainbat ekintzen artean, 2014an urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte: Angel Oñederra eta Manuela Arrizabalaga; Marciano Rodriguez eta Teresa Santos; Jose Antonio Kortazar eta Mari Carmen Arizaga; Carmelo Alzibar eta Maria Begoña Beloki; Narciso Caballero eta Benita Blasquez eta Florencio Agirre eta Florentina Corbillon. Horrez gain, txokolate jana eta 80 urtetik gorakoena bazkaria ere egin zuten.



## Astlehenean banatuko dituzte kirol federatuaren urteko sariak

Realeko presidenteak eta bi jokalarik hasiko dute ekitaldia

**A**stlehenean banatuko ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Kirol Federatuaren 2014ko Sariak. Sari-banaketa ekitaldiaren aurretik, baina, mahai-inguru bat izango da, aurreko urteetan egin izan duten legez, eta aurten Realeko presidente Jokin Aperribai eta talde txurri-urdineko bi jokalarik etorriko dira. Realaren balioen inguruan jardungo dute gonbidatuek. Udal Kirol Patronatutik aurreratu dute azken unera arte ez dutela jakingo Realeko zeintzuk jokalarik etorriko diren.

Ondoren egingo da sari-banaketa eta herriko 19 kirol taldek euren taldeetan nabarmendu direnak sarituko dituzte, direla kirolari, entrenatzaile, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesle. Guztira, 23 sari banatuko dituzte, eta ekitaldia Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan izango da, 19:30ean hasita.



Jokin Aperribai Realeko presidentea.

### Bihar jokatuko da Aias-tiako Murkaikupe pilota txapelketako finala

Bihar, 19:00etan, jokatuko da Aias-tiako frontoian XXII. Murkaikupe txapelketako finala. Igor Txurruka eta Bionek osatutako bikotea eta Iker Txurruka eta Basuetak osatutakoa lehiatuko dira finalean. Euria egingo balu, partida Itziarko frontoian jokatuko lukete.

### Haur krosa antolatu dute Mendaron biharko

Hirugarren urtez jarraian, Eguberrietako Haur krosa antolatu du biharko Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko. 17:00etan hasiko da, Mendarozabalen, eta izenemateak hant bertan egin beharko dira orduerdi lehenago. 2003. urtetik 2009ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dira. Bukaeran, partehartzaile guztiek domina bana eta goxoki poltsa bana jasoko dute.

## Korrika agurtuko dute urtea Elgoibarren eta Mendaron

Urteko azken eguneko lehen minutuan (abenduarien 31n, 00:01ean) hasiko da Elgoibarko San Silbestre lasterketa herrikoia, eta egun berean, arratsaldean (17:00) egingo dute Mendaron, estreinakoz aurten. Bost kilometroko ibilbidea izango dute biek.

Mintxeta atletismo taldeak antolatu du Elgoibarko lasterketa, eta izenemateetatik lortzen duten dirua Juan Mugertza Nazioarteko Krosa finantzatzeko baliatuko dute. Izenemateak lasterketa hasi baino 15 bat minutu lehenagora arte egin beharko dira, baina dagoeneko erabakia dutenek parte hartzea Salento, Lanbroa, Jai Alai, Tantaka eta Iturri tabernetan eman dezakete izena. Bi euro balioko du izena emateak, baina gaztetxoek doan egin ahal izango dute korrika. Antolatzaileek garbi laga dute lasterketak ez duela izaera lehiakorrik izango, eta beraz, ez dituztela denborak hartuko eta saririk ere ez dutela banatuko. Hori bai, partehartzaile guztien artean opariak zozketatuko dituzte.

Mendaron estrainekoz egingo da aurten San Silbestre eguneko lasterketa. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatu du, eta ibilbidea bost kilometro izango ditu. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Mendaroko Ormola, Txirristaka edo



Aitz-beltz tabernetan eman daiteke izena, bi euro ordainduta. Dena dela, egunean bertan ere izango da izena emateko aukera. 17:00etan hasiko da, eta zirkuitu honi bi itzuli egin beharko dizkiote: Plazatik hasi eta Azpilgoetarantz abiatuko dira parte hartzaileak eta handik Garagartzara. Ondoren, estaziotik San Josera joateko eta han itzulia emango dute, frontoira itzultzeko.



# Gaur banatuko dituzte Nazioarteko Xake Txapelketako sariak

20:00ak aldera banatuko dituzte sariak udaletxean



Zapatuan hasi zen Nazioarteko Xake Txapelketa eta gaur izango du bere azkena. Izen handiko hamar xakelarik parte hartu dute: Kevin Spraggett (Kanada), Aleksa Strikovic (Serbia), Angel Almagro (Espainia), Dragan Paunovic (Serbia), Santiago Gonzalez (Euskal Herria), Ismael Teran (Espainia), Patrice Etchegaray (Euskal Herria), David Astasio (Espainia), Sevan Buscara (Frantzia) eta Gustavo Barrenetxea (Elgoibar, Euskal Herria). Denek denen kontra jokatu dute, eta gaur iluntzean jakingo da zeintzuk izango diren aurtengo saridunak. 16:00etan hasiko dituzte azkeneko partidak, eta ondo bidean, 20:00etarako jakingo da irabazlearen izena. Orduan banatuko dituzte sariak, udaletxeko pleno aretoan.

## Maite Maiora eta Mustapha El Hachmi nagusitu dira Gipuzkoako Kros Txapelketan, nor bere mailan



Eibarko Bolunburu Krosarekin batera, Gipuzkoako Kros Txapelketa jokatu zen domekan Arrateko Olabe zelaian, eskola kirolean dabilzan atletentzat zein atleta federatuentzat. Gaztetxoan mailan, Mintxeta Atletismo Taldeko bi ordezkari nabarmendu ziren. Mustapha El Hachmi elgoibartarra izan zen garailu jubeniletan, eta Martin Hernandezek brontzezko domina eskuratu zuen kadeteetan. Emakumezkoen senior mailan, berriz, Maite Maiora mendarozarra gailendu zen. Maite Maiorak Goierri Garaia taldea ordezkatzuz egin zuen antxixika Eibarren, eta 19 minutuan osatu zuen ibilbidea, Lourdes Oiarzabal taldekideak baino bederatzi segundo gutxiagoan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Aretxabaleta 3  
 Mutriku 1 – Elgoibar 3 (Erregionala)  
 Elgoibar 5 – Arrasate 1 (Jubenila)  
 Lazka 2 – Elgoibar 3 (Kadete A)  
 Elgoibar 1 – Burumendi 3 (Kadete B)  
 Elgoibar 21 – Eibartarrak 0 (Lehenengo infantila)  
 Elgoibar 3 – Aloña Mendi 0 (Infantil txiki)  
 Elgoibar 0 – Lagun Onak 3 (Alebin errendimendua)  
 Elgoibar 7 – Arrasate 1 (Alebin parte-hartzea)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Zierbena 4 (Segunda B)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (1) 25 – Lagunak (2) 16 (2. mailako nag.)

### ESKUBALOIA

Camargo 23 – Lauko Elgoibar 29 (Sen. nesk.)

Alcorta Forging Group 31 – Murdaneta 25

(Sen.mut)

Gabaz Elgoibar 21 – Amenabar 25 (Sen.mut)

Astigarraga GYS 22 – Aloña Mendi 25 (Jub.nsk.)

Tolosa 21 – Beristain Banaketak 25 (Jub.mut)

Tecnifuelle 27 – Aloña Mendi 15 (Kad.nsk.)

Corazonistas 23 – Deca Elgoibar 28 (Kad.mut.)

Bankoa Elgoibar 33 – Hondarribi 22 (Kad.mut.)

Bar Alaiki 16 – Pneumax 14 (Kad.mut.)

Pulpo 21 – San Roke 17 (Inf. nsk.)

Eibar Eskubaloia 12 – Grupo Cometel 27 (Inf.nsk.)

Federotipicos Ikus 43 – Eibar Eskubaloia 8 (Inf.nsk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20

12:00 Kadete – Anaitasuna (Ohorezko kadetea)

16:30 Erregionala – Ikasberri (Erregionala)

Domekia, 21

9:30 Entrenamendua (Benjaminak)

### ESKU PILOTA

Zapatua, 20

19:00 Danok Bat – Lagunak (Finala. Kepa eta

Etxeberria ariko dira Elgoibartik)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 20

11:00 Cometel – Aloña Mendi (Inf. nsk.)

12:30 Txarriduna – Aloña Mendi (Inf.mut.)

17:45 Deca – HTG Express (Kad.mut.)

19:15 Pneumax – Aiala B (Kad. nsk.)

Domekia, 21

10:00 Tecnifuelle – Urdaibai (Kad. neskek)

11:30 Astigarraga – Urdaibai (Jub. neskek)

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta arropa plantatzeko. Esperientzia daukat. ☎ **631 203 587**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **602 490 595**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **667 015 989 / 943 254 553**
- Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero edo pintore lanetarako. Ordutegi malgua. ☎ **602 850 239**

- Emakumea lanerako prest. Interna. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ **631 141 183**
- Emakumea etxeko lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gidabaimenarekin. ☎ **631 343 232**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: garbiketarako lanak, umeak edo adinekoak zaindu... Interna edo orduka. ☎ **632 767 696**
- Pertsona bat eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen edo garbiketarako lanetan aritzeko prest. ☎ **638 338 816**

**PARTIKULARRAK**

- Unibertsitateko sarbide proba prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke, bereziki, gaztelania eta matematika eskolak. ☎ **617 053 329**

**BESTELAKOAK**

- Bigarren eskuko autoa hartuko nuke opari. Transferentzia gastuak neuk ordainduko nituzke. ☎ **602 850 239**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

**estetikaalire**  
Upxiz zehar, 1 behe - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar

**Aurpegi eta matxin kontrako tratamenduak**  
**Berria CYCLONE aparatua!!**  
**Zelulitisa gutxitu eta argaltzeko!**

*Gabon zoriontsuak!*




*Lurdes*  
*Hezapaindegia*


Pedro Miguel Urruzuno kalea, 10  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

*Sonia* estetika

**Gabon zoriontsuak!**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Gure komunitatean bizilagun batek urtebete baino gehiagoko atzerapenarekin ordaintzen ditu kuotak eta horrek likidezia arazoak sortzen dizkigu. Likidezia arazo horien ondorioz, kontratatutako zerbitzuak atzerapenez ordaintzera behartuta gaude edo eta bestela gure poltsikotik dirua aurreratuzera, kontratatutako zerbitzu horiek eten ez diezazkiguten.**


**Zordun horiei errekaru bat jarri ahal diegun jakin nahiko genuke.**

Legeak ez du mugarik zehazten komunitateak zordunari ezarri diezazkiokeen errekaruen gainean. Bizilagun batek dituen betebeharrak oso-osoan nahiz parterren batean betetzen ez dituen kasuetan, zigor klausula ezartzea legoke, eta Kode Zibilak berak klausula hori judizialki leuntzeko aukera eskaintzen du. Zigor klausula hori, baina, denek adostua izan behar da, eta adostu osteko arau-hausteetan bakarrik aplikatu ahal izango da, eta ez adostu aurretik egindako zorren kasuan.

**AHOLKUA: Bizilagunen batzarrean adostu behar dira akordio horiek. Era berean, batzar horiek bera izango da akordio horrek etetea erabaki beharko duena edo eta akordio horiek indarrean noiz arte iraungo duten zehaztuko duena.**

---

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Regio de Colegios de Administradores de Financ.  
Sociedad Pinta Administradores de Financ. S.L.



• Zorionak, **Aimar!** Azkenean irtsi da! Patxo handi bat etxeko deon partez.



• Zorionak, **Klara.** San Tomas egunean 7 urte beteko dituzulako. Ondo pasa! Familiakoan eta bereziki, Ian, Adei eta Telmoren partez.



• Zorionak, **Ibai,** abenduaren 3an 7 urte bete zenituelako. Elgoibarko familiakoan partez, muxu asko!



• Zorionak, **Oinatz,** bihar 5 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasatu eguna. Etxekoan eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Iker!** Bihar 12 urte beteko dituzu! Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Goraneren partez.



• Zorionak, **Maria Jesus,** abenduaren 25ean 85 urte beteko dituzulako. Ondo pasa!



• Zorionak, **Nora,** zure 6. urtebetetzean. Familiako guztien, eta bereziki, muxu handi handi bat Roke eta Markelen partez.



• Zorionak, **Beñati!** Ondo ospatu 2. urtebetetze eguna! Segi horrela, txapel-dun! Etxekoan partez.




• Zortzikoa ospatu eta dantzatuko gurekin? Zorionak, **Gares!**



• Zorionak, **June,** abenduaren 15ean 6 urte bete zenituelako. Patxo handi bat etxeko guztien partez.



1,2,3,4,5,6... 7! **Martin,** zorionak, txapel-dun! Etxekoan eta bereziki, Unairen partez. Muxuak.




• Zorionak, aittita **Julian** zure urtebetetze ondorenean! Zorionak, **Irune,** hila 29an 9 urte egingo dituzulako, eta zorionak, amama **Maria Jesus,** bihar zure urtebetetze eguna delako. Etxekoan, eta bereziki, Garazi eta Julenen partez.




• Zorionak, **Markoni,** abenduaren 24an zure urtebetetze eguna delako. Onena zara! Jarraitu horrelakoa izaten. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Mikel,** zure 5. urtebetetzean. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Sarai eta Daniel,** abenduaren 11n eta 30ean zuen urtebetetze egunak direlako. Muxu asko, etxekoan partez.



• Zorionak, **gure printzesa,** abenduaren 10ean 4 urte bete zenituelako. Muxu asko etxekoan eta bereziki, Agurtzaneren partez.

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK


Erretratu bakarreko agurra:  
4'50€  
Argazki bikoitza:  
7€  
Hirukoitza:  
9€  
Hiru lagunetik gorako taldeak:  
15€

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:  
3'50€  
Argazki bikoitza:  
6€  
Hirukoitza:  
8€  
Hiru lagunetik gorako taldeak:  
12€


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeko bulegora,  
edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
e-postara bidali.



Abenduaren 22an,  
txokolate jana,  
bingo eta disko  
festa ludotekan,  
16:00etatik 18:30era

Igande honetarako  
gaubela antolatu dugu  
gaztelekuan,  
20:00etatik 24:00etara



## 19 barixakua

### *Eguberriak*

20:00 Parrokiako jaiotza

Elgojaiotza taldeak inauguratuko du.

### *Musika*

20:00 Musika Eskolako kontzertua

Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute, Parrokian.

### *Nazioarteko xake txapelketa*

20:30 Sari banaketa

Udaletxeko pleno aretoan.

## 20 zapatua

### *Kirola*

17:00 Hour Krosa

Mendaron.

## 21 domeka

### *Musika*

12:30 Udal musika bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

1. *Don Indalecio* (M. de la Fuente)
2. *El caserío* (Jesus Guridi)
3. *Kalejira* (J. Lumbreras)
4. *Carrascosa* (J. Texidor)
5. *Minue - Boleras* (P. Onraita)
6. *Variaciones obligadas* (J. Romano)
7. *Christmas dance party* (M. Carros)

### *Musika*

19:00 Jon Gurrutxaga

Hitz lauz diskoa aurkeztuko du, Kultur Etxeko sotoan.

## 22 astelehena

### *Kirola*

19:30 Kirol sariak

Kirol Federatuaren sariak banatuko dituzte, musika eskolan.

## 23 martitzena

### *Kirola*

22:00 Idi probak

Sigmako probalekuan.

## 24 martitzena

### *Eguberriak*

9:00 Diana

Elgoibarko Izarrarekin, kaleetan zehar.

11:30 Olentzeroren kalejira

Kalegoen plazan.

11:30 Txosna eta tonbola

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

### *Eguberriak*

11:00 Olentzeroren kalejira

Mendaron.

### *Musika*

18:45 Udal Musika Bandaren kalejira

San Lazaro egoitzan abestuko dute, eta, ondoren, Kalegoen plazan gabon kantak kantatuko dituzte.

## 26 barixakua

### *Aurkezpena*

19:00 'Garai gatazkatsu baten kronika'

Pello Arrietak eta Javier Elorzak liburua aurkeztuko dute, musika eskolan.

### *Kirola*

22:00 Idi probak

Sigmako probalekuan.

### *Bertsolaritza*

22:30 Eguberrietako bertso

jaialdia

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 27 zapatua

### *Eguberriak*

9:00 Gabon Zahar Feria

Lekueder, Kalebarren eta Kalegoen plazan.

### *Kirola*

21:30 Idi probak

Sigmako probalekuan.

### *Kirola*

22:00 Idi probak

Sigmako probalekuan.

## 31 eguaztena

### *Kirola*

00:01 San Silbestre lasterketa

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da.

### *Kirola*

17:00 San Silbestre lasterketa

MTEk antolatuta, Mendaron.

## 2 barixakua

### *Dailazoak*

16:30 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots

*Txo, Mikmak Txikia* ikuskizuna taularatuko dute Herriko Antzokian.

## 5 astelehena

### *Eguberriak*

17:30 Jaiotza biziduna

Kalegoen plazan.

### *Eguberriak*

18:00 Erregeen kabalgata

Santa Klaratik etorriko dira erregeak.

### *Eguberriak*

18:30 Erregeen kabalgata

Mendaron, Azpilgoetatik.

## 6 martitzena

### *Eguberriak*

11:30 Meza berezia

Errege magoekin, parrokan.

### *Musika*

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

- *Largo* (Haendel)

- *Aires Vascos* (J. Franco)

- *Katiuska* (P. Sorozabal)

- *The lion king* (E. John)

- *Danny boy* (W. Barker)

## EGUBERRIAK SAN LAZARO EGOITZAN

**19 BARIXAKUA**  
17:00 Bingo berezia

**23 MARTITZENA**  
11:00 Tailerra  
Gabonetako gozogintza tailerra.

**24 EGUAZTENA**  
11:00 Gabon kantak eta Olentzeroren bisita  
Gaztelekuko gazteekin.  
11:45 Meza

19:00 Udal Musika Bandaren saioa

**26 BARIXAKUA**  
17:00 Bingo berezia

**29 ASTELEHENA**  
11:00 Gabon kantak  
16:00 Txokolate jana  
17:30 Miskiren bisita

**30 MARTITZENA**  
18:00 Parrokiako abesbatzaren saioa

**31 EGUAZTENA**  
10:30 Urteko ekintzen argazki erakusketa  
11:45 Meza

**2 BARIXAKUA**  
11:00 Jolasak  
17:30 Musika Eskolako ikasleen saioa

**4 DOMEKA**  
17:30 Argia taldearen bisita

**5 ASTELEHENA**  
11:45 Meza  
17:00 Karta txapelketa  
18:45 Ekialdeko erregeen bisita

## ABENDUA GAZTETXEAN

**ABENDUAK 20-23** Euskal dantza tradizionalen ikastaroa.

**23 ZAPATUA**  
12:00 Truke azoka

**27 ZAPATUA**  
Arratsaldean 'Plazara Dantzara' eta Kale Kantariak  
21:30 Trikipoteoa, Giza Eskubideen parkean hasita  
00:00 Erromeria, Ezten Giro taldearekin.

**31 EGUAZTENA**  
4:30 Urteberri fest

\* Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra mus eta futbolin txapelketak.

### GUARDIAK

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

ABENDUA	URTARRILA	GAUEZ
<b>Egunez</b> 9:00 - 22:00	<b>Egunez</b> 9:00 - 22:00	<b>ABENDUA</b> Astelehenetik igandera
19 Zabaleta	1 Zabaleta	22:00 - 24:00 Yudego
20 Barrenexea	2 Fernandez	24:00 - 09:00 Azkue (Eibar)
21 Barrenexea	3 Yudego	Toribio Etxebarria, 4 (943 202 344)
22 Ibañez	4 Yudego	<b>URTARRILA</b> Astelehenetik igandera
23 Garitaonandia	5 Zabaleta	22:00 - 24:00 Garitaonandia
24 Fernandez	6 Yudego	24:00 - 09:00 Eorza (Eibar)
25 Fernandez	7 Ibañez	Juan Gisasola, 18 (943 206 100)
26 Yudego	8 Garitaonandia	
27 Zabaleta		
28 Zabaleta		
29 Barrenexea		
30 Ibañez		
31 Zabaleta		

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142  
**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638  
**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

### ZINEA



#### «Exodus»

19, barixakua: 22:15  
20, zapatua: 19:00/22:15  
(VOS)

21, domeka: 19:00  
22, astelehena: 21:30

#### «French women»

27, zapatua: 19:00/22:15  
(VOS)  
28, domeka: 19:00  
29, astelehena: 21:30



#### «Niko 2: Hermano pequeño problemas»

28, domeka: 16:30

#### «Los juegos del hambre»

3, zapatua: 22:15  
4, domeka: 19:00  
(VOS) 22:15  
5, astelehena: 21:30  
6, astelehena: 19:00



San Bartolome 22 - 20670 Elgoibar  
Ola Kalea 10, beheka - 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 369 377

LEHENENGO BISITA  
+  
AZTERKETA  
+  
AURREKONTUA DEBALDE

**Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu eta  
2015a etor dadila itxaropenez eta  
zoriontasunez beteta.  
Aldatz hartz-klinikan  
gure bezeroen zerbitzura  
lan egiten jarraituko dugu.  
Eskatu aurrekontua,  
batere konpromisorik gabe.**



RPS/233/13. Esther Maestre odontologoa, 2000570 kolegiatu zenbakiduna



Zorionak eta Urte Berri On  
Felicidades y Próspero Año Nuevo  
Frohe Weihnachten und ein Gutes Neues Jahr  
Merry Christmas and Happy New Year  
Buon Natale e Felice Anno Nuovo  
Joyeux Noël et Bonne Année

圣诞快乐

Zorionak  
2015



Upaitz zahar 12/ Azkue Auzoa 1 - Elgoibar - Tfnoa 943744040 - email: ils@ils.es / [www.ils.es](http://www.ils.es)



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

San Roke 10-A behea B  
☎ 647 463 436

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



# Gremioen GIDA

urte  
**berri**  
on!



*Elgoibar berrian*

**hari gara**

ehbildu

